

Talaita Feminista

2023.
urteko
dosierra

DOSSIER
fem
TALAI A FEMINISTA

Aurkibidea

Sarrera	3
Eguraldiaren iragarpena aztergai	7
Greba Feminista Orokorra	18
Bizitza garestitzea: emakumeak, bereziki kaltetuak.....	25
Euskararen aurkako oldarraldiaren aurrean.....	39
Rubiales, Mario Lopez, PPDA eta indarkeria matxista.....	49
ABAYA (soineko arabiarra) debekatzearen arrazoiak eta emakumeengan duen eragina	59
2023ko balorazioa.....	65
Gomendioak.....	67

Sarrera

Talaia Feminista: zer, nortzuk eta zertarako

Esku artean duzun hau ez da txosten bat, ez da ezerezean igeri dabilen produktu bat. Trantsizio-garai honetan feminista independentista eta/edo subiranistei artikulaziorako eta topaguneak sortzeko aukera ematen dien tresna bat gehiago da. Prozesu honi Talaia Feminista deitu diogu. Hauxe da abiapuntutzat hartu dugun ideia: Euskal Herria (eta mundu osoa) eraldaketa sistemiko bat bizitzen ari dela. Eta, hortik abiatuta, bi galderari erantzutea da gure helburua: batetik, norantz goazen; bestetik, norantz joan nahi dugun. Beste hitz batzuetan esanda: trantsizio feministaren bidean, Euskal Herria non dagoen baloratu nahi dugu, aurrerantz ala atzerantz doan ebaluatu. Eta, horretarako, aldi berean eraikitzen eta edukiz betetzen joan behar dugu trantsizio feministaren ideia bera, zeina honela ulertzen baitugu: abian den aldaketa-prozesu sakon eta geldiezin bat, zeinaren zentzua eztabaidagai baita.

Asmo horrekin, Talaia Feministak egoerari buruzko azterketa bat argitaratuko du urtero. Txosten horretan, azken urtean zehar jazotako gertaera giltzarriak jasoko ditugu, gertaera horiek emakumeen* bizitzetan eta trantsizio horrek hartua duen norabidean izan ditzaketen ondorioak ulertzeko. Txosten hori eztabaidarako eta begirada partekatu bat eraikitzeko antolatuko ditugun topaketa multzo batetik sortuko da, eta gero bueltan zabalduko da eztabaidarako tresna moduan erabiliko den beste leku batzuetara. Hitz batean: kolektiboki aztertu nahi ditugu inguratzen gaituzten, eragiten diguten eta moldatzen gaituzten gertaerak, aldi berean azterketa hori eragile sozial, sindikal eta politikoekin partekatzeko eta haien agendetan esku hartzeko. Era berean, munduari, Euskal Herriari eta gure inguruneari begiratzen diogun moduan ere eragin nahi dugu, begiratzeko era bat eta zentzu kritiko eta eraldatzaile bat indartzen lagunduz. Oraintxe irakurtzen ari zarena lehenengo txostena da, 2023ari dagokiona.

Nork osatzen dugu Talaia Feminista? Emakume* independente eta /edo subiranistaz osatutako talde bat gara; ez dugu inolaz ere mugimendu feminista ordezkatzeko, baina feminismoetan aurkitzen dugu erreferentziazko gure espazio politikoa. Geure erabakiak hartzea dugu xede, eta ahalik eta subiranotasun maila handiena izatea. Euskal prozesu subiranistaren parte sentitzen gara, eta Euskal Herri feminista bat eraikitzeko konpromisoak gidatzen gaitu, ez baitugu edonolako herri bat eraiki nahi. Gutako batzuek mugimendu mistoetara lotzen dugu geure feminismoa; beste batzuek, mugimendu feminista autonomora. Inplikazio maila guztiz desberdinekin bat egiten dugu Talaia Feministan. Eta irrikaz itxaroten dugu prozesu honek ekarriko diguna espazio ireki honetako beste adiskide batzuen ekarpen eta presentziari esker.

Filosofia partekatu bat

Talaia Feministak ez du ildo editorial jakin bat. Askotariko iritziak ditugun emakumeok* osatzen dugu. Txosten honen lanketan parte hartu dugun emakume* guztiok ere ez dugu nahitaez partekatzen bertan agertzen den guztia. Hain zuzen ere, desadostasunei eta eztabaida eraikitzaileari lekua egitearen alde gaude. Ziur asko, prozesuan zehar adostasun berrietara iritsiko gara gai batean nahiz bestean kolektiboki eskua sartu ahala, eta desadostasun berriak topatuko ditugu lehenago planteatu ez genituen galderak mahaigaineratu ahala.

Ez dugu ildo editorialik, baina bai oinarritzko printzipio komun batzuk. Euskal lurralde guztiak hartuko dituzten azterketak egiteko erronka hartzen dugu geure gain, baita geure diferentzietatik inspirazio-iturri izan dakizkigukeen esperientziak partekatzeko konpromisoa ere. Batzen gaituzten hiru gako aipa ditzakegu: Talaia Feministak filosofia kolektibo, holistiko eta eraldatzailea du.

Lehenik eta behin, kolektibotasunaren eta komunitatea eraikitzearen garrantzian sinesten dugu. Horregatik, Talaia Feminista ez da pertsona gutxi-asko buruargi batzuen multzo bat, ezta begirada gutxi-asko goiargitu batzuen batasun bat ere. Txosten hau ez da hasiera bat, ezta bukaera bat ere, eztabaidak eta elkar-entzuteak sostengatzen duten prozesu batean egindako urrats bat baizik. Batzen gaituen horretatik abiatzen den elkarlan bat da, baina prest dagoena aldi berean bereizten gaituenari begiratzeko eta hutsuneak betetzeko, oraindik ere kolektiboki esploratu gabeko lurraldeak arakatzeko.

Talaia Feminista elkarrekiko pedagogia-ariketa baten parte da. Helburua ez da dagoeneko konbentzitura dagoenari edota testu konplexuak irakurtzen dituenari soilik hitz egitea, baizik eta errotiko aldaketa feministaren ideiak jendarteratzeko bitarteko izatea. Aldi berean, beste ahots batzuk ere entzun nahi ditugu, ikasteko, jada askotarikoa den geure begirada hau aldatu edo biribiltzeko.

Bigarrenik, ikuspegi holistiko bat dugu. Etengabeko eraldaketan dagoen mundu hau poliedro konplexu bat dela ulertzen dugu, aurpegi eta ertz anitzekoa, eta aurpegi eta ertz horiek elkarrekin estekatuta osotasun bat osatzen dutela, sistema bat. Denak aztertu nahi ditugu, eta denak aldatu, "gai feministetara" mugatu gabe. Agerian utzi nahi dugu heteropatriarkatua dela desmuntatu nahi dugun sistema horren bizkarrezurra. Eta guztion bizitzak erdigunean jartzea da gorpuztu nahi dugun herriaren eraikuntza-proiektuaren ardatza.

"Talaia" diogu, baina ez gorago gaudelako; ez dugu uste gehiago eta hobeto ikusten uzten digun gain batean gaudenik. Aitzitik, uste dugu poliedro hori ulertu eta aldatzeko beharrezkoa dela ortzi-mugari elkarrekin begiratzeari, ibilbide luzeko prozesuak ulertuz eta aldaketa sistemikorako bidea ehunduz. Baina gure talaia behetik eraikitzen da: hitz handi ulertezinez osaturiko adituen egia botatze beharrez, bizitza zehatzetatik eta eguneroko jakintzatik abiatzen da.

Hirugarrenik, zentzu eraldatzailea ematen diogu prozesu honi. Ez dugu hitz egitera edo teorizatzen mugatu nahi; aitzitik, espazio baliagarri bat izan nahi dugu ikuspegi kritiko partekatu bat lantzeko, aliantzak eta subjektu politikoak sortzeko. Eraldaketa feministarako, politika publikoetan esku hartu behar dugu, komunitatean, hedabideetan, merkatuetan, jendearen sen onean, agenda politiko, sozial eta sindikaletan... Jada geure esku dauzkagun tresnak nola erabili irakatsiko digun tresna bat izan nahi du Talaia Feministak, eta orain ukatzen zaizkigunak geureganatzen lagunduko diguna.

Espiritu pragmatiko ez-posibilista dugu. Pragmatikoena, gure iritziz, hauxe sinestea eta jakitea da: badela gaurko egoeraren alternatiba bat. Edo alternatiba batzuk. Ez dugu eredu itxirik bilatzen, ezta gidalibururik ere, baina bai nora jo jakiteko argi pixka bat emango diguten itsasargiak.

2023ko egoeraren azterketa

Zein gaik osatzen dute 2023ko txostena? Eta zergatik hautatu ditugu? Aurten, kontu hauetaz hitz egingo dugu: eguraldia eta krisi ekologikoa; azaroaren 30eko greba feminista; bizitzaren garestitzea; euskararen aurkako oldarraldi judiziala; Rubiales, Mario Lopez, PPDA eta indarkeria matxista; eta abaiaren debekua.

Gaiak hautatzean, saiatu gara kontsekuenteak izaten gure filosofia ehuntzen duten hiru hariekin. Kolektibotasunari ematen diogun garrantziak, adibidez, polemika handia eragiten duten eta gaur gaurkoz zauriak sakontzeko baino balio ez duten gaiak baztertzera eraman gaitu. Aldi berean, ordea, ez dugu lurralde komun bat eraikitzeko bidea oztopatuko liguketen adostasun arruntegietan geratu nahi izan (horregatik heldu diogu abaiaren debekua bezalako auzi konplexu bati). Begirada holistiko batetik, hautaturiko gaiak desmuntatu beharreko poliedro horren aurpegiak jorratzen dituzte. Batzuk oro har kontu feministatzat jo ohi diren dimentsioei dagozkie; esaterako, greba feminista edo indarkeria matxista. Beste batzuek (adibidez, eguraldiak) berrikusketa feminista bat behar dute ertz berriak argitara ateratzeko eta emakumeengan izan ditzaketen ondorioak neurtzeko. Ondorioetan, urrats bat aurrerago joanez, gai batzuen eta besteen arteko loturak ulertzen eta eragin gurutzatuak aztertzen ahalegindu gara. Azkenik, txosten honi zentzu eraldatzaile bat emate aldera, eta gogoan izanik “bizitza erdigunean jartzea” dela gure xedea, bizitza zehatzetan ondorio nabarmenak dituzten gaiak mahaigaineratu ditugu; esate baterako, bizitzaren garestitzea eta euskararen aurkako oldarraldia.

Filosofia partekatu horrekin kontsekuenteak izateko ahalegin horretaz gain, gai bakoitzak bere motibazioak ditu. Eguraldiaz hitz egiteak kolapso ekologikoaz aritzera garamatza, eta aurre egin beharko diegun eraldaketen zenbaterainokoa neurtzera, kontuan hartuz feminismoak abiapuntu propio batetik aztertzen dituela eraldaketa horiek, ekologismoari eskua luzatuz.

Greba feminista gai “saihetsezina” izan da aurten, zapalkuntza heteropatriarkalaren funtsezko ardatz batean eragiten duelako, bai bere izaera estrategikoagatik, baita konfrontazio-agertoki berri bat zabaltzen duelako ere. Inflazioaz hitz egitea zilegi da bai emakumeen* bizitzetan duen eraginagatik, baita feminismoak garaitu nahi duen sistema sozioekonomikoaren funtsezko maltzurkeriak azaleratzeko balio digulako ere. Euskararen aurkako oldarraldia ezinbesteko kontua zen geure burua feministatzat jotzen dugunontzat, hegemonikoa den guztiaren aurka borrokatu nahi dugunontzat eta justizia sozialarekin konprometituta gaudenontzat. Ezin baitugu ahortzi gure nazio-izaeraren ezaugarri behinena dela euskara, eta gure komunitatearen elementu integratzailea. Abaiaren debekuari heltzen ere ausartu gara, gai horrek behartu egiten baikaitu mundu globalizatu honek berekin dakartzan hamaika kontraesan eta konplexutasunak jorratzera, emakumeen gorputzak borrokarako lehentasunezko espazio gisa ulertuta. Azkenik, indarkeria matxistaz ere hitz egin dugu. Zergatik? Argi dago!

Benetan espero eta desio dugu orrialde hauek biltzen dutena baliagarri izango zaigula Euskal Herri feminista bateranzko trantsizio horretan elkarrekin borrokatzeko.

Eguraldiaren iragarpena aztergai

Gertaerak

Azken uda-sasoian ez dira gutxi izan eguraldiari edo, bereziki, muturreko baldintza klimatikoari buruz jaso ditugun berriak. Eguraldiaren gorabeherari lotutako hamaika notizi izan baitira, irratsaio, albistegi edota egunkarietako lehen orrialdetan; besteak beste: temperaturen gorakadak, lehortea, kolpeko ekaitzak eta euri jasadak edota ez-ohiko gertakari atmosferikoak. Bai, gero eta ugariagoak zaizkigu, baita Euskal Herrian ere.

Gertaerek erakusten digutena

Aldaketa klimatikoak ekarritako temperaturen gorakadak, lehortea edota gertakari atmosferikoak natura azken mendean jasaten ari den ustiaketa eta kolonizazioaren ebidentziak dira. Eguraldiaren aldaketak mendebaldeko bizimoduaren aztarna eta kapitalismoaren kostuen erretratu bere gordintasunean irudikatzen du. Hau da, eguraldiaren gorabeherak ez dira anekdota hutsa.

Kolapsoaren testuinguruan: katastrofismoa vs begirada kritikoa.

Argi dago, jada ezin dugu beste aldera begiratu; dagoeneko ukazina den arazoa aurrez aurre daukagu. Eta bat-batean, urteetan zehar gutxi batzuen salaketa nekaezina izan dena, egun ezinbestean heldu beharreko problematika bihurtu da agenda mediatikoan, baita haratago ere. Berriro ere, klimak erosoan bizi garenoi eragin digunean soilik bilakatu da egiazko buruhauste partekatu eta larria.

Halere, jakina den gisan, azken boladan modu areagotuan pairatzen ari garen gertakari hauek, naturak jasaten dituen ustiaketa eta kolonizazioaren ebidentziak dira. Beste hitz batzuetan esanda, mendebaldeko bizimoduaren aztarnaren ispilua dira; kapitalismoaren kostuen erretratu gordina, nahiz eta kapitalismoak eragindako kostuen erretratu hau batzuek kontsumo ereduarekin lotura eginez erantzun faltuetan ezkututzen duten. Egoera honen aurrean, oraindik egiteke dagoen bidea luzea. Egiazki, komunikabide nagusiek gaia modu murriztu eta partzialean lantzen baitute.

Hasteko, gaur gaurkoz, krisi klimatikoa sentsazionalismotik eta alarmismotik jorratzen da; eta esan gabe doa, maiz, alarmak eragin dezakeena: beldurra eta blokeoa. Ondorioz, ikarak egoeraren kudeaketa eta irtenbide desegokiak hartzera bideratu gaitzake; Hau da, krisi ekologikoaren oinarrian dauden erroei erreparatu beharrean, errua zaurgarriagoak diren beste batzuei leporatzea, pribilegioaren eta gorrotoaren politika abiaraziz. Ekofaxismoa dugu adibide gisa, edota migrazio-klimatikoaren aurrean agertzen diren eskuin muturreko erantzunak¹.

Horri lotuta, ikarak eta izuak, begirada kritikoa eragozten dute. Hala nola, hizpide dugun gaian, azaleko irtenbideak mahaigaineratzen dira, hurrengo ataletan ikusiko dugun moduan, kapitalismoaren izateari heldu gabe. Kontrara, auzia indibidualizatu eta moralizatu egiten da, aldaketa klimatikoaren pisua herritarren bizkar gainean jarriz. Funtsean, erantzukizun politikoak estali eta egoerari aurre egiteko ahalduntze prozesua desbideratzen da askotan, eta horrela, maiz, irtenbide ekosozial errealak planteatzeko abagunea antzutu egiten da.

Ekologistek eta lurraren zein bizitzako hainbat arloetako zaintzan diharduten hainbat eragileek aspalditik daramate bitzita eta lurraldeen sostengarritasunari begira, trantsizio ekologiko eta soziala bultzatzeko betaurreko espezifikokoak jantzi behar ditugula aldarrikatzen; alta, epe luzeko lente estrategikoak geureganatu behar ditugu, betiere, urgentziaz esku hartzeko beharra alboratu gabe.

Izan ere, arestian aipatu bezala, Euskal Herriko egoera ez da batere xamurra. Besteak beste, 2022. urtea, orain arteko beroena eta lehorrena izan da². Gainera, Araba hegoaldean izan ezik, joan den mendearen erdialdetik izan den irailik beroena izan da 2023koa. Aurten ere, EAEko 40 estaziok baino gehiagok hautsi zuten urriko tenperatura maximoaren marka³. Era berean, prezipitazio-intentsitatearen errekor ugari ere gainditu dira⁴. Eta albisteen zerranda amaigabea da, kazkabarra, haizeteak, eta beste zenbait gertakarien datuei erreparatzen badiegu.

Baina eguraldiaren datuak ez dira errealitate ekologikoaren elementu isolatuak. Esate baterako, biodibertsitatearen aberastasun maila %69 jaitsi da espezieen populazioan 1970az geroztik (Planeta Bizia Txostena, 2022⁵); Eusko Jaurlaritzako datuen arabera, EAEn ere, habitaten egoera globalari begiraturaz gero, soilik %17a dago aldeko egoeran (Ihobe, 2022⁶). Baina funtsezkoa da datu horien irakurketan aintzat hartzea biodibertsitateak gure egunerokotasunarekin zein beste aldagai ekologikoekin duen elkar eragina, adibidez: biodibertsitateak eta naturak bere osotasunean eragin zuzena du klima-adaketara moldatzeko,

-
1. Gaiari loturiko artikulua: https://www.berria.eus/bizigirot/analisisa-bizigirot/migrazio-klimatikoak_1333336_102.html
 2. https://www.berria.eus/euskal-herria/inoizko-urterik-beroena-izan-da-2022a_1328112_102.html
 3. <https://www.eitb.eus/eu/albisteak/gizartea/osoa/9322629/eaeko-40-estaziok-baino-gehiagok-hautsi-zuten-astelehenean-urriko-tenperatura-maximoaren-marka/>
 4. <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritzat/-/albisteak/2023/euskalmeten-arabera-iraila-erabat-beroa-izan-d/>
 5. Planeta Bizia Txostena, 2022: https://wwflpr.awsassets.panda.org/downloads/descarga_informe_planeta_vivo_2022_1_1_1.pdf
 6. Euskadiko Ingurumen Profila, 2022: <https://www.ihobe.eus/argitalpenak/2022ko-euskadiko-ingurumen-profila-biodibertsitatea>

temperaturak erregulatzeko edota hondamendi naturalen eraginak arintzeko; halaber, Barne Produktu Gordina bezalako adierazle ekonomikoen erdia baino gehiago naturaren eta naturak ematen dizkigun zerbitzuen araberakoa da, eta ekonomiako sektore garrantzitsuak naturarekiko mendekotasun zuzena dute, besteak beste, eraikuntza, energia, nekazaritza eta elikagaien eta edarien ekoizpenak. Zentzu horretan, egun Euskal Herrian jaten dugunaren eta kontsumitzen dugun energiaren eta elikagaien %10 baino gutxiago da bertan sortua, gure aztarna ekologikoa ez ezik gure aztarna kolonialaren isla ere bada.

Horrekin lotuta, aipagarria da egun EAeko nekazaritzarako lur erabilgarrien %4,6 soilik bideratzen dela ekoizpen eredu ekologikora. Deigarriak izan da azken hilabeteetan hainbat presio sozial eta zalantza juridikoz inguratuta, trantsizio berdearen izenean plazaratu diren eta Euskal Herrian landu nahi diren megazentral energetikoei eta abeltzaintzako makroetxaldean proiektuak,... hauek ez dute ekoizpen eta kontsumo ereduaren eraldaketa lehen lerroan jarri inongo momentuan. Beraz, barra-barra ditugu ebidentzia zientifiko eta sozialak baieztatzen digutenak biodibertsitatearen galera zuzenki dagoela harremanean ekoizpen eredu produktibistarekin, kontsumo energetikorekiko dugun menpekotasunarekin, lur emankorren galerarekin edota gure osasun propioarekin.

Labur esanda, kolapso ekologiko baten aurrean gaude. Azken hamarkadetan, lurraren ustiapenak muga ekologikoaren oinarriak gainditu ditu eta, beraz, egungo egoera kritikoki irakurtzeko, askotariko eragin ekologikoak zein gizakiak eragindakoak kontuan hartzea ezinbestekoa da. Hala, eguraldiaren inguruan hitz egiteko orduan, deforestazioa, bioaniztasunaren suntsiketa, ekoizpen kate global kutsakorren normalizazioa, agroindustriaren hazkundera, itsasoaren azidifikazioa, neurrigabeko erregai fosilen edota plastikoaren erabilera kontuan hartu beharreko faktoreak dira.

Horrek guztiak ondorio klimatiko eta ekologiko lazarriak ditu. Baina, aldi berean, ekosisteman ezarritako baldintzetatik haraindi, aztarna politiko eta sozialak kontuan hartu behar dira. Adibidez: biodibertsitatea eta ekosistemen funtzionamendu ona babestea eta berreskuratzea funtsezkoa da gaixotasunak agertu eta zabaltzea prebenitzeko; biodibertsitatearen galera zuzenki dago harremanuta elikagaien ekoizpen ereduarekin eta elikagai osasuntsuen eskuragarritasunarekin; hainbat lurraldetan eragindako kalte ekologikoek migrazio-mugimenduak sortzen ditu, populazioan iparralde eta hegoalde globalaren arteko arrakala areagotuz edota oldarraldi erreakzionarioak indartuz.

Izan ere, ez dezagun gure burua engaina, kolapso ekologikoa ezin da osotasunean ulertu ez bada zaintza eta krisi sozialik gabe, eta honek, espezifikoki, emakumeen gaineko eta zaurgarriagoak diren herritarrengan du eragin handiagoa; jatorri, klase eta genero ardatzen eraginpean. Pertsona aberatsenen %10ak munduko CO₂-emisioren %48 inguru eragiten

dute, eta % 1eko eliteak emisio guztien % 17a⁷. Bereziki, ipar globala elikatzeke ekonomiak megaproiektuen gaineko gatazka ekosozialak areagotzen ditu, eta honek herri indigena eta nekazal-komunitateetan duten eraginak milaka pertsona erailtzen edota kaltetzen ditu⁸ egunero, emakumeen gaineko indarkeria eta bortxaketen kopurua areagotuz eta euren zaintza rola muturrera eramanez.

Pobrezia energetikoari begiratuz gero, adibidez, oinarrizko zerbitzuen prekaritateak eragin handiagoa du sendaketa-jardueretan eta etxeko zein zaintza lanei lotuago bizi direnen emakumeengan; zehazki, dagoeneko 2020an, EAEn (Ihobe, 2020)⁹, etxeen %8,5ek adierazi zuten energia-gastua diru-sarreraren ehuneko handia zela; %6,5ak esan zuten ezin ziotela aurre egin gastuari, eta %5,2k atzerapenak zituen fakturen ordainketan. Gainera, etxeen %7,6ak zailtasunak zituen tenperatura egokia mantentzeko; egoera horiek larriagotu egiten ziren guraso bakarreko familietan edo emakume bat buru zuten familietan. Geroztik, energia zein beste hainbat oinarrizko beharren prezioen garestitzeak egoera hau okertu du. Klima larrialdian patroizko sozialek zer nolako eragina duten ere aztertu da; rol maskulinoaren ondoriozko behar eta jarrerekin lotutako portaera batzuen kasua hartu dezakegu adibidetzat: norberaren ibilgailua erabiltzea, haragia jatea, hondakinak sortzea, irtenbide teknologikoak bilatzea gizartearen kaltetan, etab., klimarentzat kaltegarriagoak dira eta, beraz, eragin handiagoa dute klimaren aztarnan. Jarreraz harago, klima aldaketaren ondorioekiko pertzepzio mailan ere desberdintasunak daude gizonezko eta emakumezkoen artean¹⁰: gaixotasunen ugaritzea, luiziak edota ur eta elikagaien gabezia gertatzearen arriskuaren probabilitate altua izatearen pertzepzio handiagoa dute emakumeak gizonezkoak baino. Eta hau zergatik gertatzen da? Hemen, funtsezkoa da irakurketa esentzialistak ez egitea edota emakumeen jarrera iraunkoragoak txalotzearen titularretan ez jaustea. Emakumeak zein kolektibo zaurgarrienak sistema patriarkalaren eta kapitalistaren eragin handienak bizitzen dituzten heinean, horiek seinalatzeko eta salatzeke lehen lerroko adituak dira.

Krisian dagoena ez da planeta bera, gure espeziearen biziraupena baizik. Erregai fosilen gainbehera, Berotegi Eftukoko Gasa, erauzketa-industria eta horien ustiapen-metodoa, agroindustria, azpiegituren gehiegikeria edota bioaniztasunaren desagertzea, besteak beste, naturaren suntsipenaren prozesu iraunkorren faktoreak dira. Eta baita naturaren esplotazioaren deslokalizazio kolonialista ere: zaintza kate globalak, atzeritar legea, elikadura sintetikoa, pobrezia energetikoa, indibidualismo eta askatasunaren kontzepzio modernoa, besteak beste.

7. Datuak: <https://www.bbva.com/es/sostenibilidad/por-que-el-cambio-climatico-aumenta-la-desigualdad-entre-hombres-y-mujeres/>

8. Ingurumen Justiziaren Munduko Atlas: <https://ejatlas.org/>

9. Klima aldaketa Euskadin genero ikuspegitik txostena: <https://www.ihobe.eus/argitalpenak/klima-aldaketa-euskadin-generoaren-ikuspegitik>

10. 9. oharreko erreferentzi berdina.

Batzuk interes patriarkal eta pribatuen alde egiten duten erantzun faltsuetan gotortzen diren bitartean, eta kolapsoaren diskurtsoetan itsutu baino, borroka ekosozial feministaren aldeko hautua egin nahi dugu gaur, justizia klimatikoa eta justizia sozialaren irakurketa kritiko eta askatzailearen eskutik.

Gizakia vs Lurra

Honi guztiari heltzeko, gakoa gizakiok eta sistemak naturarekin ezarri dugun erlazioaren parametroen funtsari ekitea da. Oinarri hori batetik, kapitalismoaren esentzia eta logika produktibistari eta merkantilistari lotuta dago; eta bestetik, mendebaldeko paradigmatik eraturako antropozentrismoaren eta androzentrismoaren kosmobisioari uztartuta.

Jakina denez, kapitalaren muina eta xedea interes ekonomikoen metaketa da eta horren ondorioz, merkatua bere epizentroan, erdigunean, kokatzen du, merkatu-logika kapitalistaren taupadak, erritmoak eta zikloak bere interesetara moldatuz eta norabidetuz. Beraz, horrek bizitzaren dimentsio guztien eta bere inguruan sortutako harreman guztien merkantilizazioa ekarri du.

Ondorioz, naturarekiko eta ingurarekiko ezarritako begirada erabat produktibista eta merkantilista da. Eta alde horretatik, kapitalismoarentzat lurra merkantzia hutsa da: aberastasuna metatzeko “ekoizten” duen baliabidea, eta kontsumorako “ondasunik” garrantzitsuena. Azken finean, naturaren ustiaketa izan da eta da kapitalaren irabaziak eskuratzeko prozesuaren iturrik nagusietariko bat. Eta neoliberalismoaren eskutik prozesu honen dinamika azkartu eta sakondu da, naturaren esplotazioa azken muturreraino eramanez, sortutako ondorioak “zeharkako-kalte” gisa normalizatuz eta ez bereganatuz, bere existentzia agortze mailaraino eramanaz. Kapitalismoaren esentziak eta garapenak kolapso ekologiko honen estadiora ekarri gaituzte.

Baina, ezin da krisi ekologikoa osotasunean ulertu krisi sozialarekin eta gizakien esplotazio eta menderakuntzarik gabe. Kolapsoa menderatzaile eta mendekoen zapalkuntza logikan eraiki da, kapitalista izateaz gain beste hainbat ardatz zeharkatzen ditu: kolonialista, arrazista, hirizentrikoa, espezista, kapazitista, militarista edota elebakarra, beste batzuen artean.

Horrenbestez, kolapso ekosozialaren jatorria estrukturala da eta alde horretatik, trantsizio ekologikorako ezinbestean egiturazko muinari heldu behar dio. Baina zein dira eguraldi iragarpenarekin batera agenda mediatiko eta politikotik proposatzen diren irtenbideak?

Irtenbide faltsuen lainoak

Azken aldian merkatuak diskurtso ekologikoetara hurbiltzeko izan duen saiakeraren lekuko izan gara; hots, errealtate gordin baten aurrean, gizartearen eskari ekologistak areagotu diren heinean, bere burua zuritzeko ahalegina egin dute sistema kapitalista sostengatzen duten egiturek. Horri, green-whasinga deitu zaio maiz, kontzeptuak berak, ekologismoaren izenean egiten diren politika faltsuak salatzen ditu. Zuriketa eta ilusio zein irtenbide faltsuak ezkerreko gisa agertzen zaizkigunen ahotan ere entzuten ditugu, kapitalismo neoliberalaren testigua hartuta.

Esaterako, azken aldian, asko hitz egin da energia trantsizioa bultzatzeko enpresei bideratzen zaizkien diru-laguntzen inguruan. Eta nahiko gai kontraesankorraren aurrean aurkitzen gara. Europar Batasuna (EB) bezalako egiturek ekologismoa ardatz estrategiko bezala hartu izanak, Europako Itun Berdea¹¹, eta Biodibertsitatea¹² eta Baserritik Mahaira¹³ estrategien paper-bustiekin, aspalditik mugimendu ekologistak egindako borrokaren emaitza gisa har genezaken. Baina, jakin badakigu, erakunde liberal batek, ez duela horrelako ildorik jorratzen bueltan etekinik eskuratuko ez badu; eta kasu honetan, etekin hori, aldarri herritar baten kapitalizazioa besterik ez da. Mundu mailan klima-aldaketaren aurrean dagoen eraldaketa ekimen gabeziaren testuinguruan, EBk nazioarte mailan klima-aldaketaren borrokan posiziorik handiena duenaren itxura eman dezake. Baina, itxurazko posizio bat besterik ez da. Izan ere, harreman kolonial batekin batera egituratzen ditu EBk bere estrategiak, hirugarren herrialdeetatik baliabide energetikoak eta materialak erauztearen ondorioz. Sortzen den energia berriztagarrien merkatua oligopolioen menderakuntzan eta energia pobrezian sakontzen du. EBko Nekazaritza Politika Bateratuak¹⁴ ere, berriki beste 7 urtetarako onartua izan denak, tokiko-nekazaritza iraunkorra suntsitzen du, energia-dentsitate handiko, kapital handiko eta oso kutsatzaile den nekazaritza-industria sustatuz, eta biodibertsitatea eta klima-aldaketa galtzearen bultzatzaile nagusietako bat bihurtuz. EBk ez du onartu nahi justizia klimatikoa, eta ez du bere ardura historikoen ardura hartu nahi.

Beraz, eguraldiaren iragarpenaren aztergai honetan, zuriketa berdearen atzean dagoena gehiago aztertzea merezi du, lainoek zer ezkutatzean duten ikusarazteko. “Inbertsio publikoek nola oztopatzen duten trantsizio ekofeminista”¹⁵ egindako ikerketan, Espainiako Gobernuak NextGenerationEU funts europarrekin finantzatuta abiatu dituen Ekonomia Suspertzeko eta Eraldatzeko hamaika Proiektu Estrategikoetatik bost azertu dituzte ikuspegi ekofeministatik: osasuna, energia, nekazaritzako elikagaiak, ura eta zaintza.

-
11. Europako Itun Berdea: https://commission.europa.eu/strategy-and-policy/priorities-2019-2024/european-green-deal_es
 12. Luces y Sombras de la nueva Estrategia Europea de la Biodiversidad 2030: <https://www.ecologistasenaccion.org/158214/informe-luces-y-sombras-de-la-nueva-estrategia-europea-de-biodiversidad-2030/>
 13. Estrategia de la Granja a la Mesa: <https://www.ecologistasenaccion.org/215481/estrategia-de-la-granja-a-la-mesa-para-un-sistema-alimentario-justo-saludable-y-respetuoso-con-el-medio-ambiente/>
 14. Nekazaritza Politika Bateratuaren inguruko azalpenak irakurtzeko analisiak: <https://reasna.org/eu/nekazaritza-politika-bateratua-jende-gehienari-ezezaguna-zaion-politika/> eta <https://etxaldeko-emakumeak.elikaherria.eus/wp-content/uploads/2021/05/NPB-BARNE-TAILERRA-EE.pdf>
 15. XXX, OMAL, ODG eta ESF-en eskutik analisi zehatza: Susperraldi eta eraldaketa ekonomikorako bost proiektu estrategikoren analisisa. Inbertsio publikoak nola ahultzen duen trantsizio ekofeminista

Azkerketarekin abiapuntuko hipotesia berresten da: bideratzen diren finantzaketa publikoaren kantitate izugarriak gizartearen eta ingurumenaren beharrei erantzuten ez dien proposamen teknokapitalista asetzeraz doaz; hau da, kapitalismoaren ezaugarritze bati segida ematera, betikoen mesedetan. Eurentzat osasuna, zaintza, elikadura, ura eta energia ez dira ongizatearen eremuak, irabazi handiagora lortzeko eskalatu beharreko sektoreak baizik. Enfasia jartzen da, adibidez, produkzio-prozesuetan, hala nola (edozein) energia sorkuntzaren gainean osagaiak fabrikatzean edo osasunerako irtenbide digitalak eta (bio)teknologikoak sustatzean.

Datu zehatz batzuk mahaigaineratuz: nekazaritza sistemaren digitalizaziora bideratzen da ia laguntzen %50 “nekazaritzako elikagaiak” deitu dioten planean; eta plan horretan ez da behin ere aipatzen agroekologia edo nekazaritza ekologikoa, ezta ere zirkuitu laburrak edota tokiko lehen sektorerako errelebo arazoari irtenbidea emateko estrategiarik. Berdin gertatzen da Energiari lotutako planean: hidrogeno berdeak darama plan publikoaren laguntzen %22a, horiei lotutako azpiegituren eraikuntza eta energia kontsumoaren neurrigabearekin; eta esan gabe doa, laguntza publikoak ezinbestekoak liratekeen aliantza publiko-pribatuen egiturak sortzeak eta exekuzioak lehentasuna dutela autokontsumoa eta tokiko komunitate energetikoen aldean.

Ikerketa horretan aipatzen den moduan, deigarria da greenwashing-a egiteko beharra ere ez izatea, berriki COP28ko goi bilera klimatikoan ikusi dugun antzera. Dubaiko amaierako testuan energia fosilen mendeko sistema kapitalistaren bideetan sakontzen da eta egitura patriarkal, kolonial eta ustiatzaileei errotik aurre egingo dien egitasmoak mahai gainean jarri gabe pasa da, ezinezkoa eginez justizia klimatikoa eta justizia soziala lortzea¹⁶.

Materiaren eta energiaren erabilera ezinbestekoa den deshazkunderantz urrats planifikatuak egin beharrean, apustua egiten da balio-kate globalen hazkundearen alde, eta hori soilik posible izango da akaparamendu global handiagorekin eta menderakuntza logika zapaltzailearekin jarraituz. “Kapitalismo berde-militar eta digitalaren”¹⁷ logikak aurrera jarraitzen du.

Egunerokotasunean lainoetan galduta eta kontraesanez beteta gabiltzan honetan, hausnartu behar da zein bizitza eta gizarte eredu erdietsi nahi dugun; hala, jendarte ekologikoagoa, berdinzaleagoa, burujabeagoa eta lurraren eta bertako izakien zaintza bermatuko duen gizarte baterako urrats integralak eman beharko ditugu. Urrats integralak aipatzerakoan ulertzen dugu baliabide naturalen erabilera gobernatzen duten legeak, horiek sostengatzen dituzten bizi-beharrak, lurraren zaintza lanetan jarduten dutenen lan baldintzak edota pertsonen zaintza lanetan atsedendialdiak eta askatasun eskubidea bermatzea aintzat hartzen duten neurriak izango direla. Hau da, irtenbide ekofeministak egunerokotasunera eramateaz ari gara.

16. Gehiago irakurtzeko: <https://www.pikaramagazine.com/2023/12/la-cop28-deja-de-lado-la-mirada-de-genero/>

17. Un análisis crítico del Capitalismo verde y digital: <https://omal.info/spip.php?article9457>

Ondorioak eta aurrera begira: Ekofeminismotik irtenbideak

Ekofeminismoak eskaintzen duen kosmobisioak biziraupen baldintzak modu integral batean kokatzera eta bizitza guztiak erdigunean jartzeko ikuspegi eta praktikak eskaintzen dizkigu. Kolapsoaren ekaitzak zerbait agerian utzi badu bestelako bizitzak eraikitzearen urgentzia da, eta eraikuntza horren oinarri da gure existentziaren ekodependentzia eta interdependentzia; bizirautea munduarekiko harremani lotuta dagoelako, naturarekiko eta elkar laguntzan bizitzeari diogun konexio mailari. Posizio horrek munduan gure egoteko modua eraldatzen du, eta berkonektatze hori politizatzea eskatzen digu; galdetzea zerk egiten gaituen aske eta zein diren prozesu askatzaileak.

Dinamika kolonialak edota ustiapen-dinamika globalak, interpelatu eta irauli behar ditugun pribilegioak inposatzen dituzte; era berean, Euskal Herrian erreproduzitzen ditugun indarkeriak eta mendekotasunak interpelatu eta irauli behar ditugu. Hegoalde globaleko gure bizilagunek ereiten dituzten irakaskuntzen bidez elikatu behar dugu eta hemen ditugun esperientziekin konektatu beharra dugu eskubideak, autonomia eta justizia soziala eraikitzeko.

Ekofeminismoaren irtenbideei erreparatzean gure identitate eta subjektibitateen eraikuntzari erreparatzeko aukera daukagu. Pertsonala politikoa den heinean, azken urteetan gure harremanak, gorputzak, sexualitatea, emakumeen aurkako indarkeria mota ezberdinak... arazo publikoak direla plazaratu dugu. Ildo beretik, mugikortasuna, elikadura, jantzea, aisialdia, osasuna, zaintza... eta gure ustez egunerokoan ditugun beste hainbat beharrek, ditugun pribilegioak zein zapalkuntzek identitate eta subjektibitate bat eraikitzen digute, eta galdera bat datorkigu: zein leku du ekofeminismoak Euskal Herria burujabe eta feministaren eraikuntzan?¹⁸.

Zentzu honetan, ezinezkoa da subjektibitate ekofeministaz hitz egitea ekofeminismoaren begirada esentzialistaren arriskuak aipatu gabe. Hau da, lehenago aipatu bezala, ingurumen justiziaren aldeko borroka feministak ez dira emakumeen eskutik ematen naturarekiko konektatukoak jaino garelako edo eragin ekologikokoekiko sentsibleagoak garelako; irakurketa interesatu horrek emakumeak “naturalizatzen” ditu patriarkatuaren zigiluaren eragina gehiago elikatzeko, munstroa elikatzeko¹⁹; beraz, begirada ekofeministatik gure zapalkuntzak eta subjektibitateak politizatzen ditugun heinean mobilizatu egiten gara eta plazara irteten gara denon bizitzak erdigunera exijitzera.

Izan ere, ekofeminismoa pentsamendu eraldatzaileekin, praktikekin eta mugimendu sozialekin errotuta dator, eta eguraldiaren gora-beherek hainbaten kontzientzietan eragin dute. Kezka indibidualak kolektibizatze beharra daukagu, norberaren konpromisotik haratago ekimen

18. Erantzun batzuen bila 2023ko ekainean Gasteizko Sumendi espazioan antolatutako UEUko jardunaldiko kronika hemen irakurgai: <https://www.argia.eus/argia-astekaria/2834/ekofeminismoa>

19. <https://www.argia.eus/albisteak/munstroaren-umetokia-ekofeminismotik-eraldatzen>

eta prozesu kolektiboak aurrera eramateko beharra. Aktibista batek zioen moduan “klimagatik bakarka egin dezakegun gauzarik garrantzitsuena gauzak bakarka egiteari uztea da. Ekofeminismoen bidetik baliagarriak egin ahal zaizkigun irizpide batzuk zehazte aldera”²⁰, bost ildo azpimarratu daitezke:

1. Kolektibizazioa eta despribatizazioa (desmerkantilizaziotik eta desfamiliarizaziotik), proposamen publiko-komunitarioen bidez.
2. Prozesu sozioekonomikoak birkokatzea, kateak laburtuz eta lurraldeetan sustraituz.
3. Planetaren mugetara egokitzea, munduko pribilegio eta desberdintasunak zuzenduz.
4. Funtsezko lanak duintzea eta berrantolatzea, haien balioa handituz eta lan kaltegarriak eta beharrezkoak ez direnak murriztuz.
5. Demokratizatzea eta elkar zaintzea, eta hau izatea logika sozioekonomiko berriaren ardatz.

Ildo horiei loturik prozesu logikarekin garatzen ari diren zenbait adibide ditugu Euskal Herriko hainbat lekutan, tokian-tokira egokituz, erreplikagarriak izan daitezkeen erreferentziazko erakusbide; beste askoren artean:

Tokiko baliabideen jabego komunean edo publiko-komunitarioan atxikitzeari dagokionez: lurrari lotutako adibideak (Lurzaindia eta Amillubi proiektua), baso eta mendien kudeaketa (Oinez Basoa proiektua, Errez kooperatiba, baso komunalak...) etxebizitza (Txirikorda Usurbilen), autopartekatuen kooperatibak eta ekimenak (Aupa kooperatiba Lapurdiko kostaldean)

Prozesu sozioekonomikoen tokikotzea baldintza duinetan: elikadura kontsumo taldeak, elkarteak eta ekimenak (Errigora, Otsokoop, Elikagunea, Labore, Ereindajan, Biziola,...); energia arloan Goiener eta bere eskutik eraikitzen ari diren herrietako energia komunitateak

Demokratizazioa eta zaintza logikatik proposamen eraldatzaileak: Urduñako elikadura estrategia, Hernani Burujabe ekimena, Etxaldeko emakumeak, Zumaiako Malen Etxea, Maitelan zaintza-kooperatiba

Zerrenda osatzean sortzen zaizkigun zailtasun eta mugak ditugun hutsuneen adierazgarri dira. Uraren kudeaketaren galera, osasun sistemaren desegitea, janzten ditugun arropen ekoizpen eta kontsumoaren arteko auto-mugatze faltak edota mugikortasuna eta turismoaren menpekotasunaren aurrean ditugun kontraesanak.

20. 5. oharrean aipatutako XXX, OMAL, ODG eta ESF-ek landutako analisisian zehatzago azaltzen dira hauen garapenerako aukerak.

Dinamika berriak, krisi ekosozialarekin txirikordatuta, ohituren aldaketetara garamatzate, oldarraldi eta gatazkarik gabeko bidea izango ez dena. Bertan, nahikotasunaren ikuspegitik, “beharra” kontzeptu indibidual eta kolektiboa birdefinitu eta birbanaketa mekanismoak esplizitatu beharko ditugu. Burujabetza ekofeministarako baldintzak eraikitzeko bidea.

Talaia uneak eman zuena

- Euskal Herriko nekazarien eta herrien egoera kezkarria da. Erabat zapalduak daude, hirien mesedetan. Hiriak sostengatzeko baliabideak ekoizten dituzte, baina, hala ere, gutxietsiak dira eta desagertze bidean daude.
- Gure bizitzak eta lurra zaintze aldera, gure ingurumena eta Euskal Herriko jakintza historiko-kolektibo ekologista errespetatu eta babestu behar da. Nekazaritza-industriak eta makroproiektuek arriskuan jartzen dute Euskal Herria.
- Euskal Herriaren gaineko diagnostiko partekatu batetik abiatuta, planifikazio integral bat behar dugu, marko eta eskala ezberdinak kontenplatuz, tokian tokiko errealitateak aintzat hartuz eta oinarri izanik elkarkidetzak, sareak eta gobernantza feminista.
- Lurraren kudeaketa desmerkantilizatu eta despribatizatu beharra dago.
- Interdependentzia eta ekodependentziarekin loturik, osasun bakarraren ideia planteatu behar da.
- Trantsizio ekologikoaren diskurtsoaz jabetzea eta posizioak polarizatzea gizarte mugimenduekiko.
- Euskal Herria agroekologikoa izango da ala ez da izango.

Greba feminista orokorra

Gertaera

Greba Feminista Orokorra izan dugu 2023ko azaroaren 30ean. Mugimendu feministaren lidergotzarekin eta Euskal Herriko gehiengo sindikalaren babesarekin, 1500 langile batzorde baino gehiago batu dira grebara, hezkuntzan, garraioan eta komunikabideetan erantzun handia izan du eta, batez ere, historiako lehen Greba Feminista Orokorra egin dugu Euskal Herrian.

Gertaerak erakusten diguna

Zaintza: desjabetuen lan ordaindua eta ordaindugabea

Greba zaintza eskubide kolektiboan zentratu da oraingoan, “zaintza” izendatzen dugun hori gorputz desjabetuek egiten duten lan ez ordaindua baita kasu gehienetan. Zaintza lan gehienak ordaindugabeak dira eta emakumeek egiten dituzte. Mundu mailan lan ez ordainduaren %85 emakumeek egiten dute (Oxfam, 2022) eta familiaren eremu politiko-sozialean egiten da. Horregatik diogu zaintza lana gizaki desjabetuek egiten duten lan ez ordaindua dela gaur eta hemen.

Azken mendean, eta bereziki, azken hamarkadetan, emakumeak merkatura sartu dira masiboki eta horrek zaintza lanen merkantilizazio hedatua ere ekarri du. Tradizionalki emakumeek musutruk egindako lan horiek ordaindu egiten dira zenbait gunetan, hala nola, norberaren familiatik kanpo dauden gunek merkantilizatueta, erresidentzietatik hasi eta etxeko langileetaraino. Beraz, zaintza lan ordainduak feminizatuak daude eta baldintza prekarioetan egiten dira, sektore feminizatuetakoko gehienak bezalaxe, ez lan horien edukiarengatik, ez bada lan horiek egiten dituztenak subjektu subalternoak direlako.

Hori dela eta, zaintzaren bi dimentsio jorratu dira Greba Feminista Orokorrean: **a) familiaren eremu politiko-sozialean egindako lan ordaindugabea, b) feminizatutako eremuetan egindako lan ordaindu prekariora.**

- A. Emakumeek egiten duten lan ordaindugabeari esaten zaio “zaintza lana”: berdin du lan horren edukia, izan daiteke ipurdiak garbitzea, komuna garbitzea edo janaria egitea. Adibidez: Janari hori bera etxetik/familiatik kanpo egiten denean ordaindu egiten da eta ostalaritza esaten zaio, ez zaintza lana.

- B. Familiatik kanpo egiten baldin bada, ordaindu egiten da lan hori bera: etxeko langileek komuna garbitzen dute, baita janaria egin ere, erresidentzietako langileek egiten duten guztiari, nahiz eta jardun ezberdina izan, “zaintza” esaten zaio. Oro har, orokorkeria hori delako gizaki subalternoen lanaren ezaugarria: espezializazio-profesionalizazio falta, klasifikazio orokorrak eta neurketa zehatzen absentzia, alegia, lan ez ordainduaren ezaugarri berdinak.

Arrazoi hauek direla eta aldarrikatu zen Greba Feminista Orokorrean “Zaintzarako eskubide kolektiboa”, hots, bizitzan zehar zaindua izateko eskubidea bermatzeko aldarria, eta zaintza hori era publiko-komunitarioan mamitzeko eskaria.

Zaintza lanak testuinguru eta forma ezberdinetan ematen direla esateak, denon bizitzak zeharkatzen dituela esateak, ez du esan nahi denok era berdinetan zeharkatzen gaituenik. Kontrara, testuinguru eta forma ezberdinetan emanagatik ere sistema patriarkal, kolonial eta kapitalistaren ondorioa da “zaintza lana” esaten dugun hori, hau da, lan batzuk “zaintza lan” moduan ulertzea eta beste lan batzuk, aldiz, ez.

Horregatik, “zaintza lana” egiten dugun gizakiok toki konkretuetan jartzen gaitu lan horrek, bai zaintza jasotzeko baita zaintza emateko ere, hain zuzen ere, menderakuntza sistemek ez gaituztelako era berdinean taxutzen. Baldintza konkretu batzuk jartzen dizkigu sistemak eta arautzen du nork merezi duen zaintza eta nork ez, baita nori dagokion zaintzea eta nori ez ere.

Esaten dugu emakumeak ez direla jaiotzen, egin egiten direla, baina batzuetan ez dakigu ondo zer esan nahi dugun horrekin. Emakumeak desjabetze erlazioen ondorio direla esan nahi du. “Emakume” moduan markaturatua izan bazara, zaintza lanak egingo dituzu, zure patua baita. Guk, emakume garelako betetzen ditugu zaintza lanak, zaintza ordaindugabea, eta zaintza lan ordaindugabea egiteak bilakatzen gaitu emakume aldi berean. Horrez gain, zaintza lanak egiteak, beste gauza batzuetarako denbora osten digu, denbora kentzen digu lan ordaindurako, ikasteko, militatzeko, denbora librerako... oro har, boterea eta gaitasun politikoak sortzen dituzten gauza horiek guztiak egiteko. Horregatik ez da kasualitatea maila sozioekonomiko berbereko eta familia bereko gizonen baino diru, denbora, espazio, prestigio, kontaktu... laburrean, botere gutxiago izatea emakumeek. Zeren emakumeek zaintzen pasatzen duten denbora gizonen enpleguan, ikasten, kontaktuak egiten, irakurtzen, formatzen pasatzen baitute. Hau da, boterea metatzen. Eta hori da heteropatriarkatu globala, gizon eta emakumeen arteko botere ezberdintasuna munduko herrialde guztietan.

Horregatik diogu, emakumeak ez direla jaiotzen, egin egiten direla. Nola? Mundu mailako ia lan ordaindugabe guztia egiten, norberarentzako denborarik ez duten izakiak sortuz, haurren, nagusien eta adinkideen ongizatearengatik sakrifikatu behar diren gizakiak ekoitziz, familia bereko gizonen boterea, errenta, soldata, formakuntza, denbora eta espazio metatzen duten

bitartean. Horrela egiten dira gizon eta emakumeak, batzuei boterea emanaz eta besteei kenduz. Zeren, funtsean, emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasuna botere ezberdintasuna da, ez besterik. Baina, desjabetze hori ez da berdina emakume guztiengan, hain zuzen ere, kapitalismo patriarkala koloniala ere badelako eta migrazio politiko-ekonomikoak eragiten dituelako. Emakume migratuak zaintza kate globalaren begi kate kolpatuena izanik.

Zaintzaren pribatizazioa eta familiarizazioa

Azken aldian pribatizazio eta birfamiliarizazio prozesuak ari gara bizitzen; hau da, zaintza negoziarako eta etekinak irabazteko merkatua zabaltzan ari da, alde batetik, eta, bestetik, sistema publikoetan gertatzen ari diren murrizketen bidez zaintza lan horien zati handi bat familien gain, hots, emakumeen gain geratzen ari da berriro ere. XX. mende amaieran zabalduko sistema publikoek emakumeek ordaindu gabe egiten zuten lan handi baten parte bat publikoki merkantilizatu zuten, osasun sistema publikoaren bidez, erresidentzien eta eguneko zentroan bidez edota hezkuntzaren publikazioaren bidez, tartean.

Sistema publikoa izan da gure osasunaz, era masiboan, arduratu dena orain arte, gaixo gaudenean artatu gaituena, idazten eta irakurtzen ikasteko baliabideak ematen dizkiguna masiboki, gure oinarrizko ongizatea bermatzeko ardura baitzuen azken hamarkadetako sistema liberal konstituzional eta parlamentarioetan - patriarkalak, kapitalistak eta kolonialak izanagatik ere-. Azken urteetan, aldiz, sare publiko osoaren txikitze bat ari gara ikusten, eta hura aurrera eramateko estatuaren indar errepresiboak eta biolentzia zuzena indartzen ari dira: poliziaren eta haren babesaren hedapena erakunde politikoaren eta hedabideen aldetik, herri-proiektu txikitzaileen garapena, muturreko merkantilizazioa, non, analisi konparatibo baten arabera, argi ikusten den ongizatearen muturreko pribatizazio prozesu bat ematen ari dela eta horren ondorioz gero eta baldintza txarragoetan bizitzera kondenatzen gaituztela.

Murrizketa horiek gainera ez digute denoi berdin eragiten, sistema kapitalista heteropatriarkal eta kolonialista honetan zapalkuntzak gorpuzten ditugun horien gain jausten dira murrizketa horien ondorio latzenak. Adibidez, osasungintzan gertatzen ari dena: ospitaleak, zerbitzu publikoaren zati direnak, pribatizatzen ari dira, hori egiteko hainbat teknika eta mekanismo daude: Hala nola, azpikontrata bezalako externalizazioen bidez, baina baita ere, ospitaleetako zerbitzuak murriztuz,, oheak kentzea eta beraz gaixoak osatzeko ospitale pribatuetara edo etxera bidaltzea izan daiteke adibide argi bat. Etxean, aldiz, emakumeek egiten dute gaixo horren zaintza, emakumeen lan karga handituz eta, gainera, ordaindugabeko lana handituz. Lan ordaindugabe horretatik ez dute dirurik jasotzen, beraz ez dute kotizatzen eta horrek gero pentsioetan eragin zuzena du, hain zuzen ere, seme-alabak zaintzeko eszedentziak hartzen dituzten emakume horiengan guztiengan bezalaxe, eta eskatzen diren eszedentzia guztien %92 emakumeak direla kontuan hartuta, patriarkatu neoliberalaren egiturazko arazoa zein den argi geratzen da: esplotazio eta desjabetze jarraitua.

Greba kontzeptuaren eraldaketa

Langile klasearen greba laboral klasikotik, alegia, lan ordainduaren eremuan egindako grebetatik, lan ez ordaindua politizatzen duten grebetara igaro gara ezinbestean. Sindikalismoaren mekanismo nagusienetakoa den greba klasikoek enplegua hartzen zutelako kontuan, lan ordaindugabea eremu politikotik kanpo utziz. Emakumeek egindako lan ordaindugabea ez da sikiera lana kontsideratu, subalternoek egiten dutenak ez baitu baliorik, eta balioa boterea duenak ezartzen du, ez lana egiten duenak.

Zaintza lana desjabetuok egiten dugun lana denez, politikoak ez ziren subjektuek egin izan dutenez, ez zuen dimentsio politikorik, eta beraz, langile borrokaren genealogian egonagatik ere, ez du zentralitateirik izan: lan hori egiten dutenak periferiako izakiak direlako, emakumeak kasu honetan, izaki naturalak, pribatizatuak eta despolitizatuak, haiek egindako lana bezalaxe. Horregatik kontsideratu izan da emakumeek egiten duten zaintza lana haien lan naturala dela, lan erreproduktiboa deitu izan zaio, emakumeek egindako lanak balio produktiborik ez balu bezala, mantenu lan soila balitz bezala.

Milurtekoa hasi zenetik, eta laugarren olatu feministari esker, orain arte sindikalgintzaren periferian zeuden emakumeak, hau da, sektore feminizatuetoako langileak, berrantolatzen hasi ziren eta azken urteetan inoiz ikusitako greba luzeenak bizi izan ditugu erresidentzietako langileen eskutik. Aipatzekoak dira garbiketako eta ehungintzako emakume langileen grebak ere, eta horiek sortutako diskurtso feministak. Sindikalgintza feministaren garaia dela argi utzi dute etxeko langileen antolakunde eta sindikatu ezberdinek ere.

Hortaz, bi dimentsioak lotzea lortu du greba feministaren diskurtsoak: emakumeek emakume izanagatik egiten duten lan ordaindu eta ordaindugabea lotzea eta hura sistema patriarkal neoliberal eta kolonialarekin lotzea. Horrek, grebaren antolaketan eragina izan du, antolaketa sektoreka egin behar baitzen, auzoka egiten zen aldi berean: lan ez ordaindua emakume guztiok egiten dugulako eta pribatizatu eta familiarizatu dagoenez, familiak dauden toki guztietan antolatu behar izan da greba alegia, familiaren eremu sozialean, ez soilik geografikoan (etxean). Eta horrek, familia osoa jartzen du erdigunean, ez soilik patronala, erakunde neoliberalak eta enpresak, gizarte osoa, bereziki, gizonak, hots, zaintza lan ez ordaindua egiten ez duen subjektua. Horrek auzoz auzo eta era deszentralizatuan antolatzeraz eraman gaitu, sektorekako antolaketarekin batera.

Zaindua izateko eskubidea eta zaintza publiko-komunitarioa

Ildo horretan, Greba Feminista Orokorrak bi helburu zituen, batetik, greba klasikoen antzera, aldarri zehatzak egitea, alegia, batetik, zaintza ordainduari dagokionez, negoziazio mahaian negoziatuko diren aldarri zehatzak mahaigaineratzea: zaintza lanak lan erregimen orokorrean sartzea; etxeko langileen eskutik, barne langileak – internak – desagertzea, emakume pentsionisten eskutik, pentsioak gutxienez 1080koak izatea, atzerritar legearen derogazioa eta pertsona guztien erregularizazioa; zaintza zerbitzuen publikazioa eta hedapena, irabazi asmodun enpresen betoa klausuletan; erresidentzietako ratioak murriztea, soldatak igotzea, etab. luze bat 2023ko grebaren txostenean aurki daitezkeenak.

Eta, bestetik, zaintza ordaindugabeari dagokionez, komunitatea izendatu den horren interpelazioa egitea: hots, gizonak haien lana egin dezaten aldarrikatzea, berriro, emakumeek egiten baitute mundu mailan ia lan ez ordaindu guztia eta familian/etxean egiten baita. Hain zuzen ere, horretarako sortu zen familia hetero-nuklearra, patriarkatu kapitalistak behar duen lan horren guztiaren zati handiena subalternoek egin dezaten musutruk, esklabuen erara. Horretarako, esklabuak sortu behar dira, ez bakarrik proletarioak eta kapitalistak.

Bi aldarri horiek zaintza eskubide kolektibora garamatzate eta zaintza sistema publiko-komunitarioa aldarrikatzera. Horregatik, elkarren bizitzetara eusteko lanak denoi eragiten digulako, gizonak ere greba egitera deituak izan ziren, haiek ere ardurak har ditzaten, har dezaten posizio bat, ohartu daitezten emakumeek egiten duten lan ordaindugabearen zama eta desjabetzea haien ekintzen ondorio ere badela.

Publiko komunitarioaren alde egin dugu, eta hemen, hurrengo azpimarratu beharrean gaude: komunitario hitzarekin kontuz ibili behar gara, hitz hori eskuinak ere erabiltzen duelako eta elitizazioa, karitatea, feminizazioa eta familiarizazioa birstortu ditzakeelako. Guretzako komunitatea ez da norbanakoen batuketara soilik, lurralde batean bizi diren eta menderakuntza sistemak sortzen dituen izaki taldeen multzoa baizik. Menderakuntza sistema horien disputa da esparru komunitarioan dagokiguna, emakumeak eta gizonak patriarkatua existitzen diren neurrian existitzen direlako, burgesak eta langileak kapitalismoa existitzen den neurrian existitzen diren bezala eta zuriak eta arrazializatuak kolonialismoa existitzen den neurrian, horien desagerpenerako borroka da gurea.

Greba Feminista Orokorrak 1) zaintza lana erdigunean jarri duenez, 2) zaintza lan gehiena emakumeek egiten dutenez eta 3) zaintza lan ordaindugabe ia guztia familian egiten denez, familia nuklearretatik haratagoko zaintza egiturak proposatu ditugu, baita horiek lortzeko beharrezkoak diren baliabide material eta sinbolikoak ere. Hala nola, hirigintza eta sistema produktibo berriak, laguntasun edo bestelako ahaidetasun forma batzuek izan behar duten papera familia hetero-nuklearraren desegitean.

Greba feminista orokorraren ondorioak eta aurrera begira

Mugimendu Feministaren balorazioa jasoz, Greba Feminista Orokorra historikoa izan dela esan dezakegu eta mugimendu feministak zituen helburuak bete dituela: zaintza langileen antolaketa sendotu eta zabaldu da eta zaintza langile kontsideratuak ez ziren horiek, hala nola, amak, emazteak, emakumeak, eta, oro har, lan ordaindegabea egiten dutenak, eskubiderik gabeko langile moduan ulertu eta ikusaraztea.

Sindikalismo feminista eta mugimendu feministaren arteko elkarlana sakondu da eta negoziatorako eskakizun oso zehatzak aurkeztu dira interlokutore ekonomiko, politiko eta sozialen aurrean, greba prozesuan adostutako “Herri Akordioa” aurrera eramateko.

Horrez gain, Zaintza Sistema Publiko Komunitarioaren proposamen politikoa hedatu eta zabaldu da. Ondorioz, urrats garrantzitsua izan da dimentsio askotan Greba Feminista Orokorrekin emandakoa.

Lanaren eta grebaren ulerkerak iraultzeko gaitasuna izan du, eremu ezberdinetako lantokietara eramane zaintza krisiaren inguruko eztabaida eta sindikalgintzaren subjektu subalternoak bilakatu ditu grebak borrokaren subjektu eta protagonista. Jakina, erresistentziak hamaika izan dira, bai prozesuan eta baita egunean bertan ere, gizonek ez-zaintzaile eta borrokaren subjektu izatearen pribilegioari uko egin nahi izan ez diotelako askotan; eta baita ere, zaintza bihurtzen ari den negozioari uko egin nahi izan ez diotelako administrazio eta instituzio publiko askok.

Erresistentziak erresistentzia Euskal Herriko kaleak bete ziren Azaroaren 30ean, lana, greba, sistema publikoa, sindikalgintza, komunitatea, dena disputatzeko indarrez atera da mugimendu feminista lehen Greba Feminista Orokorretik.

Talaia uneak eman zuena

- Mugimendu feministak lan handia egin du aliantzak sortzen zaintza sektoreko langileekin, eta bide horretan sakondu behar da. Oso interesgarritzat jo da mugimendu feministak lidergoa hartu izana greba batzordeen jarduera bultzatzeko.
- Sindikatuetakoko emakume feministek izandako jarrera aktiboaren garrantzia azpimarratu da.
- Praktika politiko dekolonial bateranzko bidea egiteko moduari buruz hausnartu behar du mugimendu feministak.
- Emakume migratuen kolektibo batzuekin izandako harremanak positiboki baloratu dira, baina aurrera begira, emakume arrazializatuekin aliantzak ehuntzen jarraitzeko, feministon artean sartzeko eta erabakiak hartzeko espazio komunak eraikitzeko beharra azpimarratu da.
- Gazteek ere zaintza praktikatzen dute. Beraz, gazte ikuspuntutik, zaintzaren bi dimentsioak, alegia, zainduak eta zaintzaileak izatea, hausnartzeko beharra dugu.
- Eztabaida eta lanketarako, marko komunak ezartzeko beharra dugu, adibidez, jardunaldi batzuetan zaintzaren kontzeptuan gehiago sakontzeko: publikoa, komunitarioa, unibertsala..., nola izan nahi dugu zainduak...
- Haserre handia dago gizonekin, hausnarketa prozesu bat egin behar dute beraien kabuz, adibidez, greban izan duten jardunaren balorazioa egiteko.
- Bataila kulturalaren erronka dugu, jendarteko sektore gehiagotara iristeko bideak identifikatu behar dira, zaintzaren auzia sozializatzen jarraitzeko eta, bereziki, Herri Akordioa herriz herri ezagutarazteko, diagnostikoak egiteko eta irtenbideak gauzatzeko.
- Instituzioen aurrean presioa areagotu behar da, zaintza pribatua publiko bihurtzeko bidea zehaztu eta, hitzetatik haratago, feminizatutako sektoreak prekarizetatetik atera behar ditugu.

Bizitza garestitzea

Emakumeak, bereziki kaltetuak

Gertaera: bizitza(k) garestitzen ari d(ir)a

Azken urteetan, inflazioaren albistea hainbatetan titular bilakatu da eta 2023ko urtea ez da salbuespena izan, gure egunerokotasunaren titular nagusietako bat izan da. Are gehiago, inflazioak egun pairatzen dugun fenomeno izaten jarraitzen du²¹. Edozein kasutan, inflazioa adierazle kuantitatibo bat besterik ez da, bere gorabeherekin, datua hobetzen denean krisia gaindituzat emango dute. Baina sakonean, benetan kezkarriena dena da adierazle kuantitatibo horrek ezkututzen duen errealitatea: bizitzaren garestitzea.

Murgilduta gauden prekarizazio eta pobretze prozesuaren testuinguruan bizitzaren garestitzeak egoera larriagotzen du, emakumeok izanik, besteak beste, kaltetuenak. Arrazoiak ezagutzen ditugu: baliabide material gutxiago daude emakumeen esku; enegarren krisi honi aurre egiteko pisua emakumeen bizkar uzten da; ikusezinak diren eremu pribatuetan, etxeetan, geratzen da krisiari aurre egiteko ardura; krisiari aurre egiteko hartutako erabaki politiko eta ekonomikoak ez dira berdin iristen emakumeengana.

Gertaerak erakusten diguna

Gertatzen ari denaren inguruko argazki feminista osatu bat egiteko asmoarekin, irakurketa lau ataletan banatu dugu. Lehenik, bizitzaren garestitzearen prozesuari berari erreparatu diogu, horren ezaugarriak eta ondorioak sakonduz. Bigarrenik, bizitzaren garestitzea prekarizazio eta pobretze testuinguruan kokatu dugu, bere eraginak piztu dituen kezkak eta beharrak aztertuz. Hirugarrenik, bizitzaren garestitzeak ezkututzen dituen bestelako dimentsioei jarri diegu arreta, emakumeengan duen eragina ikusaraziz. Azken finean, bizitzaren garestitzeak ez gaitu guztiok berdin kolpatzen: gero eta aberastasun gehiago metatzen duten irabazleak daude eta erresistentzia edo biziraupen estrategiak pentsatu behar izan dituzten galtzaileak daude; eta galtzaileen artean, batzuk (emakumeak, besteak beste) beste batzuk baino galtzaileagoak dira. Laugarren atalean, inflazio edo bizitzaren garestitzeari aurre egiteko emandako erantzunak jaso nahi izan ditugu: sistematik erabakitakoak eta sistemari emandakoak.

21. <https://mrafundazioa.eus/es/centro-de-documentacion/analisis-de-coyuntura/analisis-de-coyuntura-145>

Baina hausnarketari ekin baino lehen, zertaz ari gara prekarietateaz eta pobreziaz ari garenean?

Ongizate estatuetan historikoki enplegua izan da segurtasun-iturria eta horregatik, ohikoa da prekarietatea espresuki lan-prekarietatearekin lotzea. Hala ere, baieztapen hori mugatua da. Batetik, enplegua izan dutenak nagusiki gizonak izan direlako, beraz haiek izan dira segurtasun-iturri horren onuradunak. Eta bestetik, prekaritatea lan-prekaritatea bera gainditzen duen fenomeno bat delakoan gaudelako: oinarrizko eskubideak bermatzeko ziurtasun eza, hain zuzen ere.

Prekaritatea bizitzeko beharrezkoak diren baliabideak eskuratzeko ziurgabetasunarekin batera sortzen eta hedatzen da. Eta gaur egun, hori da normalizatzen eta instituzionalizatzen ari den errealitatea. Horrek hautatutako bizi-proiektuari ekiteko ezintasuna ekartzen du, eta baita ustekabeko egoerei aurre egiteko zailtasuna edota ezintasuna ere; egunean-egunean bizitzera behartuz inolako aurrera begirako proiektiorik eta erreserbarik gabe.

Prekaritatea eta bazterkeria edo pobrezia ez dira isolaturik dauden bi errealitate desberdin, elkarloturik dauden egoerak dira, prozesu berean oinarritzen baitira continuum bat osatuz. Ustekabeko egoeren aurrean erreakzionatzeko gaitasunik ez dagoenean, erraz pobrezia eramaten zaitu. Horrenbestez prekarietatea fenomeno bakarra da baina bere eraginak intentsitate maila desberdinak izan ditzake, eta pobrezia da horren muturreko egoera.

Prekarizazio-prozesu horretan emakumeak protagonista nagusienetakoak dira, hain zuzen ere, emakumeak direlako enplegua eta zerbitzu publikoak eskuratzeko baldintza okerragoak dituztenak, familiaren edota sare komunitarioen sostenguan jokatzeko duten rolaengatik.

Bizitzaren garestitzea

Bizitzaren garestitzearen hausnarketari ekiteko ezinbestekotzat jotzen dugu bizitza duinaren funtsezko dimentsioak identifikatzea. Alegia, bizitza duin bat izateko oinarrizko premiak direnak. Eta horiek dira, prekarizazio eta pobrezia-prozesuak zuzenean eta bortizki eragiten dituzten dimentsioak.

Elikagaiak asko garestitu dira azkenaldian. “Oinarrizko elikagaiak % 25,72 garestitu dira azken bi urteetan”, 2023ko irailean Manu Robles-Arangiz fundazioak argitaratu zuen Egoeraren Azterketa 145 izeneko txostenaren²² arabera. Gainera, goranzko joera etengabea

22. https://mrafundazioa.eus/eu/dokumentazio-zentrua/egoera-azterketa/egoeraren-azterketa-145-ordena-geopolitiko-berria-krisi-ekonomikoa-inflazioari-aurre-egiteko-eta-langile-klasearen-pobrezia?set_language=eu

da: “Elikagaiak iazko urrian baino % 9 garestiago daude Hego Euskal Herrian, eta hilabete batetik bestera beste % 1,5 garestitu dira”²³. Ipar Euskal Herrian ere, antzeko joera antzeman dezakegu: “Frantzia da buru 2022ko urtarriletik 2023ko abuztura bitartean elikagaien % 17,9ko inflazio metatuarekin. Ondoren Espainia dator, % 17,2ko datuarekin”²⁴.

Etxebizitza geroz eta garestiagoa da. Etxebizitzaren garestitzea etengabekoa da, politika ekonomikoen eraginez espekulazioaren mesedetan balioa biderkatzen ari da. Turismoa jarduera ekonomiko nagusia izateak, besteak beste, hori ekarri du. Horren ondorioz, Euskal Herrian bititzea geroz eta garestiagoa da, bai pisu bat erostea zein alokatzea. Manu Robles-Arangiz fundazioaren aipatutako txostenaren arabera, etxebizitzaren prezioak hamar hiruhilekoz jarraian egin du gora (2021eko urtarriletik 2023ko irailera).

Garestitze horrek, batez ere emakumeei eragiten die, zailagoa dutelako gastu erantsiari aurre egitea, eta horrek etxebizitzarako eskubidea ukatzea dakar. Genero ikuspegitik Eusko Jaurlaritzak 2022an egindako etxebizitza eskuratzeari buruzko txostenak²⁵ gordinki iragartzen du egoera larriagotzen ari dela.

Halaber, Kontsumoko Prezioen Indizearen (KPI) bilakaerak etxebizitza eskuratzeko zorpetu izanagatik kaltetzen gaitu, eta jakina, guztiok dakigun moduan, KPIa murrizteko interes-tasa igotzea²⁶ erabaki politikoa da, ekonomia finantzarioak aginduta. Urte amaieran Europako Banku Zentralak interes-tasak izoztea erabaki badu ere, datu puntualetik haratago begiratu behar zaio sakoneko prozesuari.

Alokairuaren prezioari dagokionez, etengabe igotzen ari da²⁷ urte batzuetatik hona. Espainiar estatuan, 2022an alokairuko etxebizitza baten metro koadroko prezioa % 7,4 garestitu zen eta soldatak % 0,7 jaitsi ziren.... “2012tik aurrera, soldaten eta etxebizitzaren prezioaren bilakaerari begiratuta, ikusten dugu 10 urte hauetan soldatak % 3,4 igo direla (% 4,6 azken 5 urteetan), eta alokairuko etxebizitzaren prezioa, berriz, % 51,4 igo dela (% 35,3 azken 5 urteetan).

Manu Robles-Arangiz fundazioaren aipatutako txostenean jaso bezala, etxe-agentzia baten arabera, prezioek alokairuko etxebizitzen merkatuaren errekor berri bat markatu dute. 2023ko abuztura arteko datuek erakusten dute prezioak % 2,7 igo direla Nafarroan eta % 6,3 EAEn.

23. https://www.berria.eus/ekonomia/indarra-galtzen-ari-da-elikagaien-inflazioa-baina-iaz-baino-9-garestiago-daude_1345087_102.html

24. <https://www.lefigaro.fr/conso/inflation-alimentaire-pourquoi-la-france-fait-figure-de-mauvaise-eleve-en-europe-20231113>

25. https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritzaren/contenidos/informacion/ovv_mujer_2022/eu_ovv_ana/index.shtml

26. https://www.berria.eus/ekonomia/ebzk-425eraino-igo-ditu-tasak-eta-ez-du-argitu-irailean-zer-egingo-duen_231208_102.html

27. <https://nosotros.infojobs.net/prensa/informes/en-10-anos-los-salarios-han-crecido-un-34-mientras-que-el-precio-del-alquiler-se-ha-incrementado-un-514-segun-infojobs-y-fotocasa>

Energiaren garestitzeak ez du etenik. Krisi energetiko orokorra nazioarteko testuinguru zehatz batekin lotzen da²⁸: tentsio geopolitikoekin, Ukrainako gerra hasieran; gero, Palestinaren aurkako sarraskiarekin. Eta krisi horiek energiaren garestitzea ekarri digute, arrazoi nagusietako bat bilakatuz. EHUko Iñigo Anteparra ekonomialariak dioenez, “elektrizitatearen prezioak behera egin du 2023an, baina jasanezina izaten jarraitzen du, 2021eko erdialdetik oso igoera handiak izan baititu, eta, ondorioz, neurrigabeko prezioak izan dira”²⁹.

Hego Euskal Herrian prezioek behera egin dute³⁰: erregaiak, oro har, iaz baino % 4,5 merkeago daude. Are nabarmenagoa da argindarraren prezioaren jaitsiera. Iaz baino % 18,6 merkeago dago. Hala ere, erakundeek igoera berriak aurreikusten dituzte. Ipar Euskal Herrian prezioek gora egiten jarraitu dute³¹: etxeetako kontsumorako elektrizitatearen prezioa % 11 igo da, eta gasa % 21 2022ko lehen seihilekotik 2023ko lehen seihilekora.

Aipatu dugun bezala, bizitzaren azken garestitzeak areagotu egiten du lehenagotik datorren joera. Langileriak dagoeneko erosahalmena nabarmen galdu du. Ipar Hegoa fundazioaren 8. Ikusmiran³² jasotzen denaren arabera, 2008-2019 epealdian emakumeek oro har 3.405 euro galdu dituzte erosahalmenean, bizitza garestitu denarena baino gutxiago igo baitzaizkie soldatak. Diru-sarrera baxuenak dituzten emakumeen kasuan diru galera hori 12.847 eurotara igotzen da.

Prekarizazio eta pobretze prozesua azkartzen duen krisia

Garestitzearen auziaren atzean dagoen benetako arazoa da bizitzeko behar beharrezkoak diren elikadura, etxebizitza eta argindarra, merkatuaren esku egotea. Sistemak lortu du berarentzat onargarriak diren KPI mailak berreskuratzea, bizitzaren garestitzearekin batera oinarritzko beharren merkantilizazioa ezarriz.

Benetako bizi baldintza duinak izan eta erosahalmena ziurtatzeko, zerbitzu publikoetarako sarbidea eta prestazioak jasotzeko eskubidea bermatuak izatea erabakigarria da. Alde horretatik, hiru adierazle horien bilakaerak oso modu gordinean azaltzen du garestitzeak ekarritako prekarizazio eta pobretze-prozesuaren azkartzearen zergatia. Lehenik, erosahalmena galtzen da, diru sarrerak soldatak zein pentsioak izan; bigarrenik, zerbitzu publikoetan ez da behar beste inbertitzen, eta publiko-pribatu elkarlanaren izenean pribatizazio prozesuak ez du

28. <https://www.iparhegoa.eus/formakuntza-soziala/talaia/energia/isidro-enaola/>

29. <https://www.ehu.eus/eu/-/pobreza-energetica-en-tiempos-de-altos-precios-de-la-energia>

30. https://www.berria.eus/ekonomia/indarra-galtzen-ari-da-elikagaien-inflazioa-baina-iaz-baino-9-garestiago-daude_1345087_102.html

31. <https://ec.europa.eu/eurostat/web/products-eurostat-news/w/ddn-20231026-1>

32. <https://www.iparhegoa.eus/azterketak/ikusmiran/ikusmiran-08-langileriaren-lan-eta-bizi-baldintzak/>

etenik; eta azkenik, diru laguntzen eta prestazioen helburua egoera eramangarria egitea izan arren, gutxi dira eta gaizki antolatuak, gainera.

Eskola-bekekin gertatutakoa murrizketa horien eta pobrezian duten eraginaren adibide garbia da: eskura dagoen azken txostenaren arabera³³, eskola-jantokiko beka jasotzen duten EAEko ikasleen ehunekoa (askotan, elikadura-pobreziako egoerei aurre egiteko tresna nagusia izaten dena) %19,5etik %15,3ra jaitsi zen, 2018-2019 ikasturteik 2020-2021 ikastertera.

Politika sozial horrek bestelako arazoak sortzen ditu: batetik, laguntzen izaera asistentziala da; eta bestetik, familian oinarritzen da, familia sostengurako eta zaintzarako gune nagusi bakar bilakatuz eta betikotuz. Eta ondorioz, eredu horren arabera, emakumeen zaintzalearen rola indartuz.

Zerbitzu publikoen pribatizazioak eta murrizketek dakarten bizitzaren merkantilizazio prozesua iraunkor bilakatzen ari da, sortzen dituen ondorioek prozesua bera elikatuz: batetik, oinarrizko eskubideak merkatuan erostera behartuz; eta bestetik, erosahalmenaren galeraren ondorioz baliabideak eskuratzeko ezintasuna nagusituz. Horrenbestez, emaitza guztiz ezaguna da¹⁴: prekarizazio prozesuak aurrera egiten du eta gehien kaltetzen dituen eremuak zaintza eta osasunarenak dira. Ipar Hegoa fundazioaren³⁴. Ikusmiran³⁵ txostenaren arabera, zaintza lan eta enpleguetan jarduten duten langile (hau da, lan ordaindu zein ordaindu gabeko lanetan ari direnak; eremu pribatuan zein enplegua dutenak) ia-ia gehienak prekarietatean bizi dira. Enplegua izan arren eta egiten dituzten zaintza lanak ekonomikoki (gutxi) aitortuak egon arren, bizitza duina bermatzeko diru-sarrerara nahikorik ez dute. Izan ere, KPI-aren arabera eguneraturiko Gutxieneko Soldataren (1.570€) azpitik daude:

- Etxeko langileen batez besteko soldata Espainiar estatuko Langile Estatutuan zehaztutakoa 1.080 euroko da.
- Etxeko lanetan Hego Euskal Herrian 186.800 herritarrek dihardute eta gehiengoa, % 87,97, emakumea da. Inolako aitortza sozial zein ekonomikorik gabe egiten dute lan.
- Hego Euskal Herriko Helduen egoitzetako langileen batez besteko oinarrizko soldata 1.444,74 eurokoa da, beraz beharko lukeen soldataren azpikoa.

Dudarik gabe, emakumeak dira prozesu horren zama bere gain hartzen dutenak, muturreko egoeren aurrean erabaki konplikatuak hautatzera behartuz: berogailua jarri edo elikadura zaindu; osasun pribatura jo, familiaren bestelako beharrak bere gain hartuz...

33. Hezkuntza Euskadin. 2019-2021 Txostena, Euskadiko Eskola Kontseilua, <https://consejoescolardeeeuskadi.hezkuntza.net/eu/informe-ensenanza>).

34. Christine Lagardek berak albo-kalte bezala definitu zituen enpleguan, enpresetan eta familietan neurriak izango dituen ondorioak.

35. https://www.iparhegoa.eus/wp-content/uploads/2023/11/ikusmiran14_zaintza_eus.pdf

Datuek argi eta garbi errealitatearen gordintasuna agerian uzten dute: Hego Euskal Herrian 538.000 lagun daude pobrezia eta gizarte bazterketa pairatzeko arriskuan³⁶. Euskal Autonomia Erkidegoan³⁷, 2022ko datuek (2023an argitaratuta) aipaturiko joera erakusten dute: 267.442 pertsonen oinarritzko gastuak murriztu behar izan zituzten, 40.057k elikadura-arazoak izan zituzten (horietatik 24.709 “oso larriak”). 88.577 pertsonen ez ordaintzeagatik arazoak zituzten, eta horrek esan nahi du 11.762 etxetan hornidurak eteteko arriskuan zeudela eta 7.062k enbargatuak izateko arriskua zutela. Gehiago ziren (178.095) neguan hotza pasatzen zutenak energiaren kostuaren igoeragatik, % 18ko aldea 2020arekiko. Oro har, oraindik ere genero-arrakala dago, eta emakumeek bazterketa-arrisku handiagoa dute.

Egoeraren premia eta genero-desberdintasunak argi eta garbi ikusten dira etxebizitzaren eremuan. Gehienez soldataren % 30 alokairura bideratu beharko litzatekeela estimatzen den arren, Ipar Hegoa fundazioaren 11. Ikusmiran txostenaren³⁸ arabera emakumeek gizonezkoek baino soldataren ehuneko altuagoa bideratzen dute alokairua ordaintzeko. Hain zuzen ere, Nafarroa Garaian emakumeek soldata garbiaren % 43,33a eta gizonezkoek, aldiz, % 34,26a. EAE-n emakumeek % 54,53a eta gizonezkoek % 46,02a. Ondorioz, egoera horrek bereziki emakumeei etxebizitza eskuratzeko eskubidea mugatzen die. 2023an ezagutarazitako datuen arabera, “Bakarrik lau emakumetik batek ditu diru-sarrerak lehen etxebizitza eskuratzeko. Etxebizitzaren beharrari aurre egiteko diru-sarrera nahikorik ez dutela adierazi duten emakumeen ehunekoa % 73,9ra igo da 2021ean, eta gizonen tasa baino ia ehuneko 4 puntu handiagoa da”.

Horrekin batera, populazioaren arteko desberdintasuna areagotzen ari da: Hau da, EAEn “erdiko klasea” murriztu egin da eta muturretan kokaturiko biztanleriaren ehunekoak handitzea ekarri du pobrezia eta aberastasuna handiagotuz; pobrezia Aurrerako Sarearen (EAPN) azken txostenaren³⁹ arabera.

Hasieran aipatutako Manu Robles-Arangiz fundazioaren txostenaren arabera, aurrezkiak (neurri handi batean pandemian zehar lortu zirenak) “desagertzen” ari dira. Gai horrek klase-irakurketaren ikuspuntutik zera adierazten du: aurrezkiak agortzen ari zaizkien edo agortu zaizkien klaseak behe mailako klasekoak dira; aldiz, goi mailako klaseek, aurretzen jarraitzen dute. Aurrezki-tasa 2020an % 25ekoa izatetik 2023ko lehen hiruhilekoan % 12koa izatera igaro da Espainiar estatuan.

Horrenbestez, prekarietateak eta pobrezia populazioaren arteko desberdintasunak areagotu eta sakondu ditu, desberdintasun horren aldagaiak, arraza, generoa eta klasea, erabakigarri

36. https://www.berria.eus/euskal-herria/hego-euskal-herria-538000-lagun-daude-pobrezia-arriskuan_234054_102.html

37. https://www.eldiario.es/euskadi/velocidades-sociedad-vasca-pobrezia-frio-casa-invierno_1_10502881.html

38. <https://www.iparhegoa.eus/azterketak/ikusmiran/ikusmiran-11-euskal-herriko-langileriaren-lan-eta-bizi-baldintzak/>

39. <https://www.eapn.es/estadodopobrezia/ARCHIVO/documentos/informe-ARPE-2023-pais-vasco.pdf>

bilakatuz. Azken finean, biztanleriaren eremu horiek dira babesgabeago daudenak errealitate horri aurre egiteko: gutxiago kobratzen dutelako, eskubide sozial eta ekonomiko gutxiago dituztelako eta gabezia material gehiago pairatzen dutelako.

Ezkutatzen diren dimentsioak

Ez ohiko irabaziak, neurririk gabeko aberastasunaren metaketa. Arestian aipatzen genuen moduan, bizitzaren garestitzeak bigarren aurpegia dauka: pobretze prozesuarekin batera, aberastasunaren metaketa gertatzen da. Elkar loturik dauden bi fenomeno dira. Ez dugu denok galtzen, izan ere, batzuek irabazten dute, eta gainera, asko irabazten dute.

2023ko urtarrila eta iraila bitartean, Espainiar estatuko sei banku nagusiek⁴⁰ 19.761 milioiko errekorreraino igo dituzte irabaziak tasen igoerari esker, 2022ko hilabete beretan baino ia % 24 gehiago. Euskal jatorrizko erakundeei⁴¹ dagokienez, Iberdrolak 3.637 milioi euroko irabazi garbiak poltsikoratu ditu urteko lehen bederatzir hilabeteetan, hau da, % 17,2ko igoera izan du. Kutxabanken kasuan, epe berean 385,2 milioi euroko irabaziak izan ditu, 2022ko aldi berean baino % 53,8 gehiago.

Horrelako albisteak oso ohikoak izan dira aurtengoan ere. Beraz, irabaziek agerian uzten dute garestitzearen atzean erabakiak, estrategiak eta enpresa politikak daudela, dudarik gabe. Alde horretatik, esan beharra dago irabazi hauek ez direla zilegi, eta kasu batzuetan ezta legezkoak ere (Iberdrola epaitegietan dago⁴², argindarraren prezioa puztu zuela leporatuta).

Bereziki kezagarria da lehengaiekiko espekulazioa, elikagaien garestitzearen oinarrian baitago. Urte hasieran, BEZaren jaitsieragatik merkatu ziren oinarritzko elikagaien erdiak. Aldiz, hamar hilabete geroago elikagaien erdiek neurri horren aurretik baino prezio altuagoa dute, Facua kontsumitzaileen erakundeak Espainiako zortzi supermerkatu-kate nagusiei egindako jarraipenaren⁴³ arabera.

Azpimarratzekoa da pobrezia-prozesuaren eta ez ohiko irabazien arteko loturak elikadura katean duen eragin desberdina. Prezioek gora egiten duten bitartean, horren onuradunak ez dira bertako ekoizleak, baizik eta banatzaileak, haiek baitira irabaziak bereganatzen dituztenak. Horrekin batera, saltoki eta banatzaileek BEZaren jaitsiera erabili dute salgaiak

40. https://www.eldiario.es/economia/gran-banca-dispara-beneficio-nuevo-record-19-761-millones-gracias-subida-tipos_1_10644510.html

41. https://www.naiz.eus/eu/hemeroteca/gara/editions/2023-10-27/hemeroteca_articles/beneficios-record-de-kutxabank-e-iberdrola-tras-recurrir-el-impuesto

42. https://www.berria.eus/economia/iberdrola-epaitegietan-argindarraren-prezioa-puztu-zuela-leporatuta_234040_102.html

43. <https://www.publico.es/economia/mitad-alimentos-basicos-ya-cuestan-mas-bajada-del-iva.html>

garestitzeko. Hau da, enpresa handiek manipulatzan dituzten balio-kateen menpe gelditzen dira gure oinarrizko beharrak; eta oinarrizkoak diren beharrak asetzea arriskuan jartzeaz gain, kontsumitzaileen, bertako ekoizle txikien eta herrietako merkatu txikien sareak kaltetzen dituzte.

Garestitzearen aurrean bizirauteko estrategiak. Instituzio publikoek pribatizatzen edota eskura jartzen ez dituzten zerbitzuak azkenean familia berak bereganatzen dituen lan bilakatzen dira. Biziraupen-estrategia hori (hau da, jada erosi ezin dena edo estatuak ezin duena eman, emakumeen doako lanarekin ordezkatzeko) erabakigarria da. Batzuetan “doako ekonomia” izendatu dugun estrategia honek bi ezaugarri ditu: 1) emakumeak dira protagonistak 2) sareek (batez ere, familiakoek) duten garrantzia adierazten dute, individualismoaren aurrean.

Estrategia horrekin batera beste prozesu bat ere egon daiteke: “birbilatzeko estrategia” deritzona, beste krisi-une batzuetan identifikatuta dagoena; hau da, lan-merkatutik kanpoan ziren emakumeak, batez ere 55 urtetik gorakoak, lan-merkatuan sartzea (eta emakume horientzat oso zaila da lan prekarietate handiko egoerak baino zerbait gehiago aurkitzea). Hala, INEren arabera, adin-talde horretako emakumeen merkataritza-jardueraren tasa handitu egin da 2018ko hirugarren hiru hilabetera 2023ko hirugarren hiru hilabetera, EAEn % 17tik % 21,1era eta Nafarroan % 18,3tik % 23ra. Ezin izan dugu Euskal Herriko Iparraldeari buruzko datuak eskuratu.

Jakina, aipaturiko biziraupen-estrategia horiek bereziki, prekarizazio eta pobretze-prozesuan murgilduta dauden estrategiak izan ohi dira, hots, populazioaren eremurik zaugarrienen estrategiak. Beste batzuek, berriz, beren oinarrizko eskubideak eta beharrak asetzeko ordaintzeko prestutasuna azaltzen dute beren bizitza merkantilizatuz eta batzuetan, zorpetuz: esate baterako, osasun-aseguru pribatuetara joz edota gero eta pribatizatuagoa dagoen hezkuntza ordainduz. Datu batzuek joera argia erakusten dute: EUSTATen arabera⁴⁴ EAEn bizi diren biztanleen % 23k osasun-aseguru pribatua du. 2015etik, aseguru pribatuen kontratazioa % 4,7 eta % 6,9 arteko bi urteko erritmoan hazi da. Gainera, aseguraturako pertsonen artean emakume gehiago daude gizonak baino. Ez hori bakarrik, familia eta babes sistema publikorik gabe, ekimen sozialetara jotzen dutenen kopurua handitu da, kasu, elikagaien bankuak⁴⁵.

Ikusten ez den lana eta ezkututzen den prekarizazioaren aurpegi honen inguruko datu eguneratuak aurkitzea oraindik ere ezinezkoa da. Biztanleria Aktiboaren Inkesten emaitzak hiru hilean behin argitaratzen dira, aitzitik, zaintza lanarekin erlazionaturako datuak, hau da, denboraren erabilerrari buruzko datuak 2018koak dira EAEaren kasuan, Espainiar estatuan 2009-2010ekoak dira eta Frantziar estatuan 2010ekoak. Litekeena da EAEn eta Espainiar estatuan datu berriak izango ditugula 2023tik 2024ra bitartean.

44. https://eu.eustat.eus/elementos/ele0020200/ti_euskal-aen-establezimenduak-dauzkaten-erakundeetan-osasun-aseguru-bat-duten-pertsonen-kopuruak-64-egin-du-gora-2021ean-/not0020211_e.html

45. https://www.eldiario.es/euskadi/inflacion-pone-limite-bancos-alimentos-vascos-reducen-mitad-entrega-leche-aceite_1_10110547.html

Zorpetzea da bizirauteko beste bideetako bat, hala ere, gero eta korapilatsuagoa izaten ari den hautua, besteak beste, interes tipoek finantziatorako aukera garestitu dutelako hautu hori zailduz. Dena den, horrek familiariari nabarmenki eragiten dio eta hezkuntzan gertatzen ari dena horren adierazle da. Egun, seme-alaben ikasketak ordaintzeko zorpetzea errealitate bihurtzen ari da. Edo osasun arloan, osasun publikoaren murrizte eta pribatizazioaren aurrean, eremu pribatura joatea gero eta aukera hedatuago bilakatzen ari da. Finantziario nahikotasunaren faltan, erresistentzia ekonomikoak sortzen dira, alegia, aurrezkietatik tiraka aurrera egitea⁴⁶.

Orokorra den estrategia kontsumoa gutxitzea⁴⁷ da, ordea; estrategia deituz badago funtsezkoak diren elikagaiei edo zerbitzuei uko egin behar izatea. Izan ere: “Elikagaien prezioaren igoeraren ondorioz, herritarrek erosketa-saskiak aldatu dituzte, produktu freskoen kontsumoa nabarmen murriztuz. Hau da, elikaduraren kalitateak okerrera egin du azken hilabeteotan”. Eta jada esaten da, horren ondorioz, osasun arazo gehiago etorriko direla, prekaritate-katea elikatuz.

Erantzunak

Sistematik erabakitakoak. Hartutako neurri nagusia ekonomia neoliberalak ezartzen duen interes tipoen igoera izan da. Ez da, noski, herritarrek edo kontsumitzaileak babesteko neurria: igoera horrek hipoteken igoera dakar, ez, ordea, herritarren aurrezkiak hobeto ordaintzea. Herritarren finantziario arazoek merkatuak moteltzea ekar dezakete. Hori izan daiteke interes tipoen igoera berririk ez egiteko arrazoia.

Hartzen ez diren erabakiak, erabakiak ere izaten dira. Alde horretatik, hasieratik merkatuan esku hartzeko eta prezioak kontrolatzeko ekimena alboratzea erabaki bat izan da. Merkatuari bere bidea egiten utzita, egin den bakarra oinarritzeko bi kontuei ekitea izan da: diru laguntzak ematea edo fiskalitatearekin jokatzeko. Laguntzek merkatura diru publikoa desbideratzeko balio izan dute: BEZa jaitsi arren, prezioak igo egin dira jaitziera hori merkatuak irentsi duela erakutsiz.

Sistemari emandakoak. Kontsumoko Prezioen Indizearekin lotutako garestitzeari erantzuteko atzetik zetozen dinamika, mobilizazio eta borroken baitan erantzun zaio.

Batetik, Pentsionisten mugimenduaren eta Karta Sozialaren mobilizazioak egon dira, bata erosahalmena aldarrikatuz, bestea energiaren garestitzeak ekarri duen egoera energia trantsizioaren borrokan kokatuz. Mugimendu feministak atal honetan egin ditugun gogoeta

46. <https://www.naiz.eus/es/info/noticia/20230903/de-la-terapia-del-miedo-de-hace-un-ano-a-la-actual-quebra-por-aplastamiento>

47. <https://cadenaser.com/nacional/2023/10/16/el-pecado-la-carne-y-el-aceite-de-oliva-son-los-productos-mas-castigados-por-la-subida-de-precios-segun-la-ocu-cadena-ser/>

gehienak zaintzaren aldeko borrokan jaso ditu: diskurtsoan zein dinamikaren baitan kokatu du baldintza materialen eta zaintza sistema publiko eta unibertsalaren borroka.

Bestetik, erantzun eta borroka nagusia sindikatuetatik egin dira, hitzarmen kolektiboetan erosahalmenaren defentsa eginez. Borroka kokatu da gertatzen ari denaren aurreko diskurtso kritiko eta alternatiba orokorren baitan: balio izan du diskurtsoa indartzeko baina, beti ere, borroka erosahalmenaren defentsan zentratuz. Aztertzekoa da erantzuna, ezinbestekoa delako erosahalmena ez galtzea, noiz eta % 10 eta 20 artean galdu dugunean, soldatak oso txikiak direnean...

Baina enpleguaz ari gara, lan merkatu formalera mugatzen den erantzunaz eta borrokarako baldintzak dituzten sektoreetan gainera. Hortaz, erantzuna bere horretan utziz gero, kolektibo prekarizatuenak kanpoan utziko genituzke. Soldata-igoerak, alderantziz proportzionalak ez badira (igoera handiagoak soldata txikiagoetarako), eutsi ez ezik, generoko soldata-arrakala eta, oro har, soldata-desberdintasunak handitu ere egiten dira.

Muga horiei aurre egiteko sindikalismo feminista garatzen da, erosahalmena mantentzeaz gain soldata arrakalaren aurkako neurriak proposatuz: esaterako, soldata igoera linealak edo gutxieneko 1.400 euroko soldata bermatzea.

Patronalaren jarrera itxia da sindikalismo feministaren oztoporik nagusiena, besteak beste, egun, sektore publikoan blokeatutako hitzarmenak, hain zuzen, feminizatutako lan-sektoreetakoak direlako.

LAB sindikatuak 2022-2023 ikasturteko ekintza sindikaleko informean horrela jasotzen du: "Orokorrean grebak egin ditugun eremuetan gatazka gehiago itxi direnean, aldiz, deigarria da sektore feminizatuetan, administrazio publikoetako azpikontratuetan eta zaintza lanak burutzen dituzten eremuetan gatazka gehien-gehienek irekita jarraitzen dutela. Sektore feminizatuetan aktibaturiko gatazken % 52,27an egin badugu greba, itxitako gatazken portzentajea % 29,55ekoa da, batezbestekoaren oso azpitik. Industrian esaterako % 68,18a itxi da".

Ondorioak eta aurrera begira

2023an gertatutako bizitzaren garestitze prozesuak bizitza osoa, gero eta kontzentratuagoa den botere korporatibo metatzailearen mende dauden merkatu kapitalisten esku uztearen arriskuak erakusten ditu; eta, bereziki kezagarria da, oinarriko beharrak, hala nola elikadura, energia edo etxebizitza, merkatu kapitalisten esku egotea.

Garestitze hau prekarizazio eta pobretze prozesu zabalago eta luzeago baten parte da, hau da, norberaren bizitzaren gaineko burujabetza pixkanaka galtzea. Horrekin batera, merkataritzako shockei aurre egiten saiatzen den koltxoi ikusezin gisa etxeek eta, horietan, emakumeek jokatzen duten papera indartzen da. Eta, horrek bestaldean, metatze-fenomeno bat dauka, desberdintasun sozioekonomikoak larriagotzea dakarrena.

Generoak markatzen du prozesu hori, eta bereziki bortizki eragiten die emakumezkoiei, merkataritza-egoerarik txarrean daudelako eta familiak gero eta zailagoa den testuinguru batean aurrera ateratzeko ardua handiagoa dutelako.

Hori guztia dela eta, bizitzaren garestitze prozesua burujabetza feministaren klabeen atzerapauso gisa irakur dezakegu. Atzera egite hori ukalezina da zentzu materialean: aukeratutako bizitza indibidual eta kolektiboko proiektuak aurrera ateratzeko baldintza materialetarako sarbide egonkorra zailtzen da. Baina, ikuspegi subjektiboan, fenomeno kontraesankorrak ikusten dira: biziraupen-logika oraindik nagusi den bitartean, mekanismo sistemikoak zalantzan jartzen ez dituen, badirudi txinparta-sentsazio bat zabaltzen dela eta, horri esker, mobilizazio handiak aurreikus daitezkeela.

Merkatu kapitalisten menpekotasuna haustea da trantsizio feministaren apustuaren ardatza, desmerkantilizazio eta desfamiliarizazio prozesu bikoitzean gauzatzen dena.

Bide horretan, erakundeena laguntza bat da, baina posiblearen esparrua ez dago aurrez zehaztuta, ezta politika publikoetara mugatuta ere.

Apustu horrek egiturazko aldaketarako bi bide nagusi eskatzen ditu. Lehenengoa da lankidetzaren publiko-pribatuaren logikaren ordezkari publiko-komunitarioaren logika ezartzea. Ildo horretan, zerbitzu publikoen aldeko apustua egiten dugu. Dударik gabe, publikoak, unibertsalak eta euskaldunak izan behar dira. Funtsezkoak diren sektoreak familiaren kontura izan behar diren sektore publikoak bere gain hartu behar ditu merkatutik kanpo utziz. Era berean, ezinbestekoak dira benetako politika sozialak, asistentzialismoa eta familiarismoa gaindituz eta era berean, eskubide sozialak ziurtatuz.

Bigarren erronka lurraldean errotutako subiranotasun mota desberdinen aldeko apustu tinkoa egitea da, besteak beste, elikadura-subiranotasuna eta energia-subiranotasuna. Horretarako,

burujabetzarako bidea egitea ahalbidetuko duten politikak beharrezkoak dira; adibidez, gertuko ekoizpen-banaketa-kontsumo ereduak ezartzeko eta zabaltzeko politikak eta herri ekimenak. Ekoizpen txikia eta agro-ekologikoaren ereduaren ezaugarrietako bat da gutxiago garestitu dela: batetik, merkatuaren hornigaietatik (argindarra, ongarriak...) askeagoa delako eta bestetik, espekulazio mugimendu globalen eraginetik urruntzen delako. Horrenbestez, herri bezala nahi ditugun politikak diseinatzeko eta erabakitzeko burujabetza izatea ezinbestekoa da.

Egitura sozioekonomikoetako aldaketekin batera, balio-sistemetan aldaketa sakonak sustatzea ezinbestekoa da. Horren barruan sartzen dira:

- Bizimoduaren aldaketak. Kontsumo eredu berriak ezartzeko eta errotzeko politika eta estrategiak pentsatu eta abiatu behar dira.
- Begirada berrien eraikuntza. Datu berriak eta izendatzeko modu berriak behar ditugu. Esate baterako, gaur egun ikusezina dena ikusteko datuak (ordaindu gabeko lana) edo prekarizazioa ulertzeko kontzeptu berriak, pobrezia zatikatu bezala aurkezten ez dutenak. Oro har, beste posizio batetik eraikitako begirada da behar duguna: bizitza beretik abiatzen den ikuskera, alegia. Eta alde horretatik, merkatuek gure bizitzan duten inpaktua albo-kalte gisa onartu beharrean, merkatuetan gertatzen denari arreta jartzen ahalbidetuko diguna eta bide batez, merkatuaren eragina ulertzea erraztuko diguna.
- Gaurko egoerari kateatzen gaituzten korapiloak askatzeko eztabaidak antolatu behar ditugu, bestetik. Besteak beste:
 - Merkatuan gaur dauden botere harremanak aldatu gabe merkatuan eragiteko aukera. (holakoak biziz: ekoizle txikien bizkar jartzen diren kostuak, Repsolen izenean Josu Jon Imazek egin dituen mehatxuak...)
 - Erosahalmenaren defentsa egiteak dituen mugak eta sortzen dizkigun kontraesanak.
 - Komunitatetik eta gure lurretan oinarritutako alternatibek behar dituzten bultzadak lortu arren, izango dituzten mugak (hiri gune handietan, kasu).
 - Publiko-komunitarioaren arteko korapiloa. Ikuspegi feministatik komunitarioaren kontzeptuaren definizioaren beharra.
 - Gaurko eredu hegemonikoak eta ideologikoak erabiltzen dituen adierazleak kuestionatu eta gainditze bidean, estrategia publiko-komunitarioetan oinarritutako diagnostikoen eredu berriak finkatzea.

Trantsizio-apustu horretarako itsasargi gisa funtzionatzen duten esperientziak identifikatzen ditugu, besteak beste:

- Judimendiko auzoak⁴⁸ energiaren prezioaren igoera eta elikaduraren egoeraren testuinguruan, mobilizazioa eta bide berri baterako aukerak emango lituzkeen erantzunak antolatu ditu, eta ekimen hori oso interesgarria da komunitatearen ikuspegitik.
- Goiener⁴⁹ bezalako energia berriztagarrien sorkuntza eta kontsumo kooperatibak, enpresa handien ereduari alternatiba dira. Kasu honetan aztertzea da krisi zehatz honen baitan izan duten rola.
- Otxantegi Herri Lurra⁵⁰ bezalako tokiko ekimenak: baratza komunal baten bidez, nekazaritzatik eraikuntza kolektiborako gune izatea nahi dute, baserriaren eta hiriaren arteko zubiak eraikiz.
- Elikagaien bankuen asistentzialismoaren aurrean, kudeaketa publiko-komunitario ereduetatik abiatuz elikadura burujabetzaren alde egiten duten ekimenak baloratzen ditugu, hala nola, Urduñako udal jantokia, adineko pertsonentzako egoitzari eta haur eskolari zerbitzua ematen diena, tokiko elikadura sistema bultzatzen duen eredu agroekologikotik.
- Emakumeen bizi-esperientziak eguneroko larrialdi materialei erantzuteko ardurak markatzen dituen heinean, hasieran emakumeen eguneroko bizitza hobetzearekin lotutako borroka, sarritan borroka zabalagoak bihurtzen dira, funtsezko zerbitzuen eta egiturazko aldaketen aldeko borroka, hain zuzen. Horrela gertatu da, adibidez, eskola-jantokien aldarrikapenarekin: hasiera batean kontziliazio-aldarrikapenei lotuta zegoen, eta gaur egun borroka zabalago batean kokatzen da, elikadura-eskubidearen eta elikadura-burujabetzaren alde, Gure platera, gure aukera⁵¹ ekimenak erakusten duen bezala.

48. <https://judimendikoak.com/judimendi-kalera-atera-da-energiaren-prezioaren-igoeraren-aurrean/>

49. <https://www.goiener.com/>

50. <https://www.facebook.com/otxantegi/>

51. <https://www.gureplateragureaukera.eus/>

Talaia uneak eman zuena

- Oro har, irakurketarekin bat egiten da.
- Oreka bat behar da hainbat bideren artean: eros ahalmenaren defentsa (soldatak, pentsioak, prestazioak), diskriminazioen eta ezberdintasunen borroka (soldata arrakala, aberastasunaren banaketa eta lan guztien banaketa) eta zerbitzu publikoen aldarrikapena. Hori guztia ikuspegi ez merkantilista batetik, gure bizi nahien berrazterketa bultzatuz eta planetaren mugak aintzat hartuz.
- Etxebizitza, energia, elikadura: eskubide gisa izendatu.
- Landa eremua eta hiriguneen arteko harremana. Landa eremuaren egoera azpimarratu.
- Zaurgarritasunak sortzen duen beldurra eta ezegonkortasunaren ondorio sakonak: gazteengan duen eragina, indibidualismoa indartzen du.
- Prekarizazioa sistemaren estrategia bat da menderakuntza mantentzeko, ez da fenomeno meteorologikoa, ez da norbanakoaren baldintza material konkretuen ondorioa.
- Errelatoaren ikuspegitik, pobretze orokorra gertatzen ari da, baina subjektiboki jendea ez da horrela hautematen. Jendearen bizipenekin bat egingo duen eta problematizatuko duen terminologia behar da.
- Politika publikoen inpaktua eta garrantzia ez dira neurtu. Sektore zaurgarriari begira plantan ezarri direnak, politika fiskala, energia eta garraioa...
- Subjektu politikoak sortu eskubideen urraketak salatuz eta askotariko biziraupen estrategia kolektiboak agerian utziz.
- Itsas argia bezala, mobilizazioak: zerbitzu publikoak, osasungintza publikoa, pentsioak, borroka sindikalak...

Euskararen aurkako oldarraldiaren aurrean

Gertaerak

Azaroaren 4an, 70.000 lagun batu ziren Euskalgintzaren Kontseiluaren eskutik, ehunka eragilek deitutako manifestaziora, Bilbon. Inoizko manifestazio handiena, ziurrenera, euskararen alde. Deitzaileen artean, mugimendu feministako hainbat eragile eta kide izan ziren⁵². Euskararen aurkako oldarraldi judizialari aurre egiteko bertaratu ziren milaka lagun, euskararen biziberritzearen eta euskal hiztunon eta euskal herritar guztien eskubideen alde egiteko⁵³.

Erandioko Udalekoa, Uliazpi Fundazioari buruzkoa, Barakaldokoa, Irungo udaltzainena, Laudioko Udalarena, Ondarroakoa, Arkautikoa, Orkoien, Lizarra, Zizur Nagusia, Atarrabia, Berriozar, Uharte, Irun, Antsoain, Berriobeiti^{54 55}... Euskararen kontrako auzien soka atzetik dator, baina asko luzatu da 2023an. Epai guztietan euskararen hizkuntz eskakizunak ez betetzeko eskubidea indartuta atera da, hau da, euskara ez jakiteko eskubidea legez are gehiago bermatu da. Euskararen kontrako oldarraldi judiziala areagotu egin da 2023an, baina judizialaz gainera, mediatikoa, politikoa eta ideologikoa ere bada, eta, gainera, Euskal Herri osoan gertatzen dena. Azken urtean, euskararen biziberritzearen aurka EAEko epaitegietatik jalgi diren epaiak nabarmendu dira gehien, baina Nafarroan⁵⁶, ofizialtasun irendu eta zatikatuarekin, eta Iparraldean⁵⁷, ofizialtasunik gabe ukazio betean, egoera are oldarkorragoa da.

52. <https://kontseilua.eus/oldarraldia/m10-adierazpena/>

53. <https://kontseilua.eus/oldarraldia/a4-manifestazioa/>

54. <https://www.eitb.eus/eu/albisteak/gizartea/oso/9347700/euskararen-aurkako-epaien-kronologia-judiziala-18-ebazpen-2020tik/>

55. https://www.berria.eus/euskal-herria/epaiak_1335107_102.html

56. Nafarroa, linguistikoki hiru eremutan banatua dagoenez, Nafarroako herritarrei –eta euskal herritarroi oro har– hizkuntza eskubideak bizilekuaren arabera esleitzen zaizkie, bestela esanda, zonaldearen arabera ukatuak zaizkie. Horrek, ja, berez, dakar euskararen bazterketa. Horren adibide da Nafarroako Gobernuak, eremu ez-euskaldunean, lan eskaintza publikora iristeko, euskara jakiteari baino ingelesa edo alemana jakiteari puntuazio handiagoa ematea adinako bereizkeriaz jokatzeko duela.

57. Iparraldean egoera are okerragoa da. Euskara ez da ez ezagutua eta are gutxiago ofiziala ere, gutxiago, eskubide eta, de facto hizkuntza debekatu da administrazio oso-osoan, horrek hizkuntzarentzat eta euskal hiztunentzat dakarren desprestigio eta bazterketa sozial politiko kultural eta material guztiarekin, eta, horrenbestez, euskararen iraupen soziala kinka oso larrian dago, kasik erresistentziara kondenatua. UNESCO erakundearen arabera, hiztun kopurua %30era gutxienik iristen ez bada, hizkuntza desagertzeko arrisku bizian dago. Iparraldean, euskara hiztunak galtzen joan da azken hamarkadetan eta, azken urtetan galera eten dela diruen arren, %16 eskas dira euskara ezagutzen dutenak eta, beraz, %30eko gutxienezko gutxienezko irurti dago. Horren aurrean, Euskal Konfederazioak, 2050erako euskaldunen kopurua %30era, bai ala bai, heldu beharra jarri du helburu.

2021etik, bai EAEn eta bai Nafarroan areagotuz joan dira euskara biziberritzea helburu duten politiken kontrako sententziak. Bi bereziki garrantzitsu aipatzearren: ‘Udal Legearen’ aurkako epaia⁵⁸ eta ‘Garapen dekretuen’ aurkako epaia. Kasuan kasuko epai isolatuak baino, joera bat marrazten du epai soka luze horrek: oldarraldi judizial bat, bere babes mediatiko eta ideologikoarekin abian dena⁵⁹. Zer helbururekin? Euskararen normalizazio prozesua tratatzea, eskubide berdintasuna oztopatzea, euskararen minorizazioa endekatzea eta gaztelera hizkuntza nagusi bakar gisa indartzea. Alegia, de facto epaileak hizkuntz politika egiten ari direla, botere legegilearen lana deuseztatuz eta haren eskumena ebatsiz eta gizartearen euskararen aldeko kontsentsuari ez-ikusiarera eginez⁶⁰. Euskarak aldeko neurriak eta politikak behar dituela dioen kontsentsu soziala zabala da gurean; egunero-egunero eraikitzen den langintza nekeza da, eta, orain, kontsentsu horren kontra epaile bakar batek (aldiro) kontrakoa erabakitzea eta betearaztea, inposatzailea izateaz gainera, erabat patriarkala da.

Oldarraldiaren lerroan kokatu behar dugu baita ere Hezkuntza Lege berriaren onarpena, non hizkuntz eredu baztertzailen betikotzea blindatu duen eta, beraz, ikasleen euskararekiko eskolaren bitarteko irisbide unibertsalari, berriro ere, azken hogeita hamar urteetan legez, ateak itxi zaizkion. Lege berriak jarraitzen du ikasleei berdintasuna eta inklusio soziala erdiesteko tresna nagusietakoa den irakaskuntza euskaldun integrala indarrean ez jartzen eta euskarara sarbiderik izango ez duen ikasle multzo bat sortzen, etorkizuna lapurtzen eta segregazio sozialera bultzatzen. Ez euskara indartuko da horrela, kontrakoa, gero eta erabilera txikiagoa izatea eragingo du; eta ez da guztion arteko berdintasunaren eta justizia sozialaren aldeko urratsik finkatuko.

Esan beharrik ez dago, euskara ikasteko bide eta autopista guztiak ireki behar dira urgenteki: doakoa, unibertsala eta masiboa izan behar du euskalduntzeak. Eta horretarako behar diren plangintzak egin eta baliabide guztiak guztien esku jarri behar dira: direla ordutegia bereziak, espazio askotarikoak, lan liberazioak edozein lanetan gaudela ere –ez bakarrik administrazio publikoko langileentzat– eta langabezian egonda, harrera sareak instituzionalizatu etorri berriak, bitzta duin egiteko behar duen laguntzaz gainera, euskarara sarbidea ere jaso dezan –bitzta duina izateko elementu garrantzitsua baita–... Orain artean, Euskal Herrian, euskalduntze politika liberalak egin dira: nagusiki administrazio publikoko langileei lan liberazioak eskainiz euskara doan ikasteko, eta gainontzekoek, merkatuaren legera, ordainduta ikasi behar dute, horretarako aukera badute bederen. Politika klasista bihurtzen da. Eskubide bat pribilegio bihurtu da, beste behin.

58. https://www.berria.eus/euskal-herria/eaeko-auzitegi-nagusiak-bertan-behera-utzi-ditu-udal-legea-garatzeko-dekretuaren-hainbat-artikulu_234037_102.html

59. Euskararekiko diskurtso politiko supremazistak une oro elikatzen dira. Hemen adibide bat, ELA sindikatua Eneko Anduezarri (PSE) erantzuten: https://www.ela.eus/eu/albisteak/eneko-anduezak-mediku-eskasia-euskarazko-exijentziarekin-lotzea-oso-larria-eta-gezurra-da?set_language=eu

60. https://www.berria.eus/errotik-aldatzen-ditu-hizkuntza-politikaren-irizpideak_1343608_102.html

Euskararen biziberritzea desmerkantilizazio prozesu batean kokatu behar da: merkatutik atera, eta, gorago esan dugun bezala, masiboki eta doan guztien eskura jarri eta horretarako eredu publiko-komunitarioaren ereduaren bidea aintzat hartu beharko genuke. Herri Akordio bat behar da honetan ere, Greba Feminista Orokorrek ekarri duenaren antzekoa –Euskalgintzaren Kontseiluak ere sinatu zuena⁶¹–, zaintzaren auzian lege; akaso, biak batera gara daitezke gainera. Kontseiluak, hain justu, oldarraldiaren aurrean itun soziopolitiko integral baten beharra azpimarratu du. Agian, inspirazio iturri eta lankidetzaren eremu izan liteke euskararen eta zaintzaren itunetarako.

Gertaerek erakusten digutena

“Errealitate soziolinguistikoa” eta “langileen eskubideak”: supremazismo linguistikoaren falaziak

Oldarraldiaren giro honetan, bi argumentazio zahar-berri atera dituzte plazara supremazista linguistikoek, bai epaietan, bai diskurtso politiko eta mediatikoetan: bat, euskaldunak gutxiengo diren egoera eta funtzioetan, errealitate soziolinguistikoaren statu quo-a legez babestu beharra; eta, bi, funtzio publikoko langileen elebakartasunerako eskubidea urratzen duela herritartasun eskubideak euskaraz gauzatu nahi izateak.

Lehenengoari dagokionez: euskararen egoera soziolinguistikoa gutxiengo mailan dagoen kasuetan, hau da, euskaldunak gutxiengo diren lekuetan, errealitate soziolinguistikoa topetzat hartzen da euskararen gehiengo maila legeztatzerakoan. Aldiz, euskaldunak gehiengo diren eremu eta funtzioetan –arnasgune deituetan, esate batera–, justu kontrakoa arrazoitzen da: errealitate soziolinguistikoa aintzat hartu ez, eta legearen neurria herritar gazteleradun elebakarra bihurtzen da. Euskal hiztunak gutxiengo direlako gehienetan eta gehiengo direlako batzuetan, beti bigarren mailako.

Galdera oinarrizkoa da: nola biziberrituko da euskara egun dagoen minorizazio egoerara ekarri duten arrazoiak –debekua, inposizio eta zigorrak– kontuan hartu gabe eta egoera soziolinguistikoa hobetu dadin neurri positiboak hartzea ukatzen bada?

Bigarren arrazoiketak, berriz, hiztunen eskubideak langileen eskubideen aurkako direla dio. Hau da, euskara ezin dela eskakizun izan langile bat kontratatzerakoan eremu publikoan –ba ote da Europar administrazio publikorik bertan lan egiteko hizkuntza ofiziala ezagutzea eskatzen ez duenik?–. Euskara ez, baina gaztelera –edo frantsesa– bai. Euskal Herrian

61. file:///Users/Jakin/Desktop/HERRI-AKORDIOA_eus.pdf

lanpostu publiko guzti-guztiek dute bete beharreko hizkuntz eskakizuna; alegia, ‘eskatu gabe eskatzen’ gaztelararen –eta frantsesaren– ezagutza eta erabilera salbuespenik gabe. Eta, deialdi publikoak zerbait badira, zer dira bada, meritu sorta luze bat baino, hasieratik bertatik onartuak eta baztertuak sortzen dituenak. Meritu kate horretan, ez ote minorizazioaren ajeen ondorio, euskara elementu baztertzaille bakarra dela sinestea? Hau da, indarkeria sinbolikoak bete-betean ez ote duen operatzen hemen ere, geure buruen kontrako gezurrak guk geuk ere sinetsaraziz eta menderatua dena inposatzaile gisa agertzeko...

Talka interesatu eta premisa faltsua, inondik ere. Euskararen aurkako epaiek jomugan jarri dituzten herritarrek eta langileek argi utzi dutenez, bi eskubideak ez dira kontrajarriak; aitzitik, osagarriak dira: euskaraz artatua izateko eskubidea eta euskaraz lan egin ahal izateko eskubidea lotuta baitaude, ezen hizkuntz eskubideak, gainontzeko eskubide sozial guztiak bezala, ez baitira mugatzen administrazio publikoarekin izan beharreko harreman “bezero-zerbitzari” formula murriztera. Eskubide denak, hizkuntzarenak barne, osotasunean gauzatzeko, begirada sakonagoa behar da. Hau da: norberak bere herritartasuna, bere bizitza osotasunean, hizkuntza jakin baten aurrera eramanez ahal izatea da eskubidea eta, hor, bete-betean sartzen da, besteak beste, lan eremuan ere euskaraz aritu ahal izateko eskubidea. Euskal sindikatuek (ELA, LAB, Steilas eta ESK) argi arrazoitu dute auzi hau.

Azken finean, hizkuntzen arteko desparekotasuna, eta, horrenbestez, herritarren eskubideen artekoa, Espainiako Konstituzioan esaten den horretan –eta Frantziako Konstituzioan jaso ere egiten ez den horretan– zurkaizten da: gaztelera jakitera behartzen gaitu legeak guztiok eta, aldiz, euskara erabiltzeko eskubidea baino ez zaigu aitortzen. Talka, benetako talka, benetako desberdinkeria, hor abiatzen da. Eta hortik oldarraldi judiziala, euskal gizarteak sostengatzen duen euskararen biziberritze politikei erabateko galga jartzeko.

Alegia, hizkuntza politiken ukoaren apologia eta praktika egiten da posizio supremazistetatik, izan judiziala, izan politikoa, izan mediatikoa, izan ideologikoa.

Botere judiziala matxista adina da euskarafobia

Hau guzti hau, berdin planteatu liteke, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun politikekara ekarrita: emakumeen eskubide eta berdintasunaren aldeko politikak nola egin litezke statu quo-a gordez eta horretarako statu quo-a bera legeak egiteko muga nagusi gisa planteatzen bada?

Bestela ere esan dezakegu: hizkuntza politika –euskararen eta euskal hiztunen eskubideen aldeko neurriak– konstituzioaren aurkako jotzen ditu joera judizial honek, euskararen aldeko neurriak gaztelararen kontrakoak direla, alegia. Eskuin muturrak, Espainian, emakumeen berdintasunaren aldeko neurri positiboak gizonen eskubideen aurkako politikak direla esanez

ireki dituen hainbat auzibideren kasu antzekoa da euskararekin gertatzen ari dena. Berdin, epai matxisten arrazoibideek sakonean sarri antz gehiegi dute epai euskarafoboekin.

Epai euskarafobo horietako batekin loria jo du epaile batek: Laudioko kasuan, euskararen hizkuntz eskakizun bat legez kanpo uzteko epaile horrek euskara munduko hizkuntzen artean bosgarren zailena omen dela argudiatuta⁶². Hizkuntza guztien arteko berdintasuna errotik ukatzen du, gauza jakina denean hizkuntza guztiak direla berdinak, berdin zail edo berdin erraz, kasu honetan. Hau da, bi hizkuntzen arteko distantzia berbera dela: euskaratik gaztelera ikasteak eta gaztelaratik euskara ikasteak zailtasun eta erraztasun berberak dituela. Onartuko ote genuke, esate batera, emakumeak ‘berez buru arinagoak’ direla dioen topiko matxista epaile batek bere argudiaketan sartzea? Edota zenbateraino desberdin da emakume erasotuari erasoaren errua berari leporatzea bere jarrera edo janzkera dela-eta euskarari “berezko duen zailtasuna” leporatzea?

Ez ote dute sakonean ideario bera? Erasotua eta menderatua errudun egiten duena “berez” omen dituen ezaugarriengatik? Euskarafobiak eta matxismoak eskutik egiten dute bidea, baita epaitegietan ere.

Bistako zaiguna: botere judiziala patriarkala, arrazista eta matxista den hein berean da hizkuntza auzian supremazista eta euskarafoboa.

Naturalizazioa: euskara eta emakumea menderatzeko modu identikoa.

Ohartzen bagara, hizkuntza minorizatuen eta emakumeen desberdinkeria politikak oso mimetikoak dira. Bai menderakuntza formuletan, bai helburuetan. Pentsamendu euskarafoboa oinarrian pentsamendu menderatzaile bat da, hau da, gutxiegitasuna sortu, indartu eta iraunaraztea bilatzen duena. Eta zabaltzea, normalizat jotzea. Naturalizazioa deitu ohi zaio menderakuntza prozesu horri: hau da, menderatua berezko dituen ezaugarriengatik – esentzialak, biologikoak, jaiotzetikoak, aldakaitzak– dago dagoen lekuan gizartearen sare eta botere hierarkian, ez inork mendeko lekura kondenatu duelako.

Naturalizazioak ere badu beste izendapen bat: indarkeria sinbolikoa. Fisikoa eta bortxazkoa baino sotilagoa, ikusezinagoa baina letalagoa, azkenean lortzen baitu menderatuak berak sinestea benetan berez dela gutxiago eta menderatuta egotea dela haren lekua justiziaz. Mekanismo hau masiboki aplikatzen du botere hegemonikoak bere boterea eta posizioa babesteko.

62. <https://alea.eus/aiaraldea/1643648682861-laudio-udala-euskara-hizkuntza-eskakizuna-epaia>

Eta zein da bada euskararen gainean naturalizazioak edo indarkeria sinbolikoak osatu duen iruditeria gutxiago izatea arrazoitzeko? Euskara dela txikia, ahula, basa, jakintza, kultura eta pentsamendu konplexurako ezgauza, ez-arrazionala, emozionala, poetikoa, xarmangarria, haurrei egin behar ez zaien hizkuntza, etxekoa, eskolakoa, ez eremu publikokoa, are gutxiago politika egitekoa, zaindu beharrekoa, erakargarri izan behar dena, exijituko ez duena, faborez eskatuko duena... Emakume mandatuaren ezaugarriak ez al dira berberak? Adjektibazio zahar eta berriak, garaian garai mututzen direnak, baina sakonean ideologia bera eta helburu bera dutenak. Emakumeari edo emakumetasunaren rolari zer ezaugarri egozten zaizkion begiratzea besterik ez dago, ohartzeko euskarari –edozein hizkuntza minorizaturi– egozten zaion iruditeria berbera egozten zaiona. Menderatu ahizpak dira, norbanakoaren gorputzean eta gorputz sozialean lotuta gertatzen direnak. Eta baita praktika linguistikoa ere: euskararen, frantsesaren, gaztelararen eta beste hizkuntzen erabilera generoak ere gurutzatzen du, eta horregatik hitz egiten da euskararen feminizazioaz^{63 64} eta hizkuntza hegemonikoaren maskulinizazioaz⁶⁵. Sexu-genero sistemak zurkaiztutako gure gizartea hizkuntza hautuetara ere iristen da, logikoa denez, eta hizkuntz hegemonia / hizkuntza minorizatu auzia generoak ere zeharkatzen du. Horregatik ezin da euskararen biziberritzea baldintzapen sozialak kontuan hartu gabe ulertu, eta genero auzia ezin da ulertu hizkuntz auzia kontuan izan gabe.

Eta, horregatik ere, euskararen biziberritzea feminismoaren borroka eremu bat bada, eta feminismoa euskararen biziberritzearena.⁶⁶ Hemendik ulertzen da, azken urteetan, borroka feministan euskarak hartu duen zentralitatea, eta baita euskalgintza egiten hasi den feminismoarekiko hurbilpen ideologiko eta praktikoa ere. Bi eremuetan bidea ez da erraza, bietan daude erresistentziak, hizkuntza hegemonikoaren statu quo-a gordetzearen alde eta patriarkatuaren statu quo-a sakonean ez ukitzearen alde.

Eskubideak, justizia soziala eta aliantzak: euskara emantzipaziorako lekua da

Euskaraz ari garenean, ez gara ari hizkuntzaz abstraktuan, airean, zintzilik, inor ukitzen ez duela. Aitzitik, milaka euskalerritarren bizigarritasunarekin harreman zuzenena du hizkuntzak. Euskararen normalizazioa gizartearen normalizazioa da, hau da, justizia sozialarekin, aniztasunarekiko errespetuarekin eta eskubide berdintasunarekin du zerikusia. Izan ere, feminismo intersektionalaren begiradatik, hizkuntzaren ardatza bazterrezina da. Izan ere, gaur eta hemen, euskara diskriminazio ardatzetako bat da eta beraz borrokarako leku

63. <https://bat.soziolinguistika.eus/eu/produktua/bat-106-2018-1-27a-euskara-generoaz-mintzo/>

64. <https://bat.soziolinguistika.eus/eu/produktua/euskalgintza-eta-feminismoa-identitateak-berrerai-ki-demokrazia-sendotu-boteretze-kolektiboa-bultzatu-eta-subalternitate-eraldatzaille-unibertsalak-eraikitze-proposamen-bat/>

65. <https://www.argia.eus/argia-astekaria/2849/jaime-altuna-ehu-ko-irakaslea-eta-ikerlaria>

66. <https://armiarma.eus/emailuok/?s=trikua> (liburu osoa online dago)

pribilegiatuetako bat. Beste ardatz eta borrokekin aliantzan jardutea da euskal feminismo independentistaren egitekoa, hizkuntzarena berarekin eramanez.

Euskarak lekua hartu behar du emantzipazio borroka guztietan eta emantzipazio borrokak lekua euskalgintzan. Euskara ez da arazoa –besteak beste, oldarraldi judizialak zabaldu nahi duen moduan–; euskara irtenbidearen parte da, izan behar du. Euskara menderakuntzarako lekua delako –hizkuntza bera eta hiztunak berak– euskara da emantzipaziorako lekua ere. Euskara borroka transbertsal izaki, emantzipazio borroka guztiek herri egiten euskararen hartzen dute zentzua Euskal Herrian. Ibai Atutxak idatzi duen gisan, “herri mugimenduotako zenbaitetan euskara erabili da etengabeko borroka eremu gisa. Euskara bilakatu da pinkwashing-en, greenwashing-en, basquewashing-en eta washing neoliberal guztien aurkako borrokarako tresna”⁶⁷.

Izan ere, gure garaia ezaugarri nagusia krisi guztiak larriagotu izana da: gizarte harremanen desinstituzionalizazioa martxan dago, eta horrekin indibidualismoa eta uniformizazioa; muturreko krisi ekosoziala gainean dugu; eta baita hizkuntza eta kultur aniztasuna desagertze mehatxupe gero eta handiagoan; zer esan muturreko zaintza krisiaz; lan baldintzen prekarizazioa eta lan eskubideen galera eta, horren ondorioz, gizarte desberdinkeria areagotzea ari da.

“Horren guztiaren aurrean, hizkuntza ez-hegemonikoek bestelako desio eta bestelako bizi modu desiragarriak proiektatu eta sortuko dituzten komunitateen sorrera eragiten dute”, dio Idurre Eskisabelek⁶⁸, eta Marina Garcések horrela formulatzen du: “Latinari herri-hizkuntzen matxinadan gertatu zitzaion moduan, gaur egun beharrezkoa da hizkuntza ez-hegemonikoen altxamendu bat, adierazteko, bizitzeko eta pentsatzeko moduak estandarizatzen ari diren hizkuntzen aurrean”⁶⁹.

Alegia, erasoaldi hau dena ez da soilik hizkuntzaren kontrakoa. Euskararen biziberritzeak berekin dakartzan eta gehiago ekar litzakeen justizia sozial, inklusio, emantzipazio eta subiranotasun bideei atek ixteko bidea ere bada. Eta, gainera,

euskararen kontrako oldarraldiak berezko ezaugarriak izanagatik, oldarraldi orokorraren barruan doa, halere: olatu atzerakoi eta erreakzionarioaren eta mundu totalitario baten bidean. Ez alferrik, Espainiako eskuin muturrak behin eta berriz sartzeko zaku berean menak, musulmanak, feministak, transak eta euskara. Argumentazio bera darabil guztientzat: arriskua direla Espainiaren batasun eta izpiritu nazionalerako. Espainia bat handi eta librearen etsai. Arrazoi beragatik, subirautza borroka berean ahizpa behar dugu izan.

67. <https://www.txalaparta.eus/eu/berriak/barbaroen-mistika-ibai-atutxa>

68. <https://www.pikaramagazine.com/2023/10/tokiko-hizkuntzak-faxismoaren-aurkako-antidotoa/>

69. <https://www.jakin.eus/liburu-bildumak/irakurgaiak/filosofia-amaitu-gabea/895>

Borroka feministari aingura bat hizkuntzan eta lurraldean

Eta, hain zuzen, horixe da euskal independentismoaren lezio historikoetako bat. Euskarak herri bat ematen du, lur bat, komunitate bat gainontzeko borroka emantzipatzaileek sustraiak bota ditzaten. Borroka feministari, zehazki, tokian toki aplikatzeko ainguratze historiko bat, lurralde bat eta lurralde horretan, herri bat azken mendeetan borrokan. Borroka feministak, berriz, euskararen biziberritzea interseksionalitatearen eta aliantza politiken bidean kokatu eta jarduteko eremua ematen dio.

Nor izatearen aitortza gurean hizkuntzatik ere igarotzen da. Bi zentzuetan, gainera, nortasun indibidual eta kolektiboaren argamasa gisa eta nor izatearen eskubidearen aitortza gisa. Euskara da gure herriaren zeinua, herri identitatearen ezaugarri, ez bakar bai bereziena, berezkoa, bertakoa eta endemikoa delako. Euskal Herrian biziko da edo ez da biziko. Feminista subiranista garen heinean, ezin dugu ulertu euskara kolorea ematen duen pintzelkada bat gisa, beste koloreen artean; euskara ez da edergarri bat, ez da antzinako izpiritu bat, ez da zerbait berezi eta exotikoa; euskara paisaia osoa da, koadroa, markoa, itsasoan ura eta paisaia horretan menderakuntza leku pribilegiatu bat delako, paisaia horren arnasbidearen eta emantzipaziorako leku pribilegiatuetako bat.

Ondorioak eta aurrera begira

1. Baldintzapen sozialak edo politikoak, aldeko edo kontrako izanda ere, euskara erraz sakrifikatzen da beti eta ia beti bigarren mailako hiritar egiten du bere hiritartasun eskubideak euskaraz egikaritu nahi daituen euskalduna.
2. Bazterketa elementu gisa hartzen da euskararen hizkuntz eskakizuna, beste hizkuntzak edo bestelako merituak –ikasketak, herritartasun agiriak, maila ekonomikoa, jatorria...– ez bezala. Eskakizunen artean, katebegi ahulena , euskara, baztertzailena bihurtzen da horrela, ahulen dagoenari –eta behar gehien duenari– esaten zaio baztertzaila. Zer da, orduan, indartua egonik gehiago indartzen dena? Ze hizkuntza? Ze meritu? Euskal Herrian zalantzan jartzen den meritu bakarra beti euskara da.
3. Hizkuntza politiken ukoaren apologia eta praktika egiten da posizio supremazistetatik izan judiziala, izan politikoa, izan mediatikoa, izan ideologikoa.
4. Epai matxisten arrazoibideek sakonean, sarri, antz gehiegi dute epai euskarafoboekin. Kasualitatea ote? Euskarafobiak eta matxismoak eskutik egiten dute bidea, baita epaitegietan ere eta horregatik botere judiziala patriarkala, arrazista eta matxista den hein berean da hizkuntza auzian supremazista eta euskarafoboa.

5. Naturalizazio eta indarkeria sinboliko menderakuntza mekanismoek modu berdinean operatzen dute generoaren eta hizkuntza minorizatuen gainean.
6. Sexu-genero sistema bitar gure gizartearen ardatz nagusi da eta horrek eragina du hizkuntza eta hizkuntzen hautu eta erabileran. Horregatik, ezin da euskararen biziberritzea baldintzapen sozialak kontutan hartu gabe ulertu eta genero auzia ezin da ulertu hizkuntza auzia kontutan izan gabe.

Aurrera begira, ondoko lan-ildo hauetan jarri nahi dugu arreta:

1. Euskarak lekua hartu behar du emantzipazio borroka guztietan eta emantzipazio borrokak lekua euskalgintzan. Euskara ez da arazoa –besteak beste, oldarraldi judizialak zabaldu nahi duen moduan–; euskara irtenbidearen parte da, izan behar du.
2. Euskara, borroka transbertsal izaki, emantzipazio borroka guztiek herri egiten euskararen hartzen dute zentzua Euskal Herrian. Feminismoak bereziki, euskalgintzak eta feminismoak, gero eta gehiago, bidea elkarrekin baino ezin dutela egin ulertzen dutelako.
3. Burujabetza eta emantzipazio borroka berean ahizpa behar dugu izan.
4. Euskarak zer eskaintzen dio: borroka feministari tokian toki aplikatzeko ainguratze historiko bat, lurralde bat eta lurralde horretan, herri bat azken mendeetan borrokan. Eta borroka feministak euskarari, berriz, euskararen biziberritzea intersektionalitatearen eta aliantza politiken bidean kokatu eta jarduteko eremua eta tresnak ematen dizkio.
5. Herri Akordio bat behar da euskararen aldeko biziberritzean eta defentsan ere, Greba Feminista Orokorrak zaintzaren auzian ekarri duenaren antzekoa –Euskalgintzaren Kontseiluak ere sinatu zuena⁷⁰–, eta, akaso, biak batera edo akordio bakarrean, gara daitezke gainera. Esploratzeko bide eder bat izan daiteke.

70. file:///Users/Jakin/Desktop/HERRI-AKORDIOA_eus.pdf

Talaia uneak eman zuena

- Izendapena: hizkuntza auzia, hizkuntza larrialdia.
- Hizkuntza auzia zehar lerro moduan hartu behar da esparru guztietan. Ikuspegi interseksional batetik, hizkuntzaren ardatza kontuan hartu behar da: gainontzeko gaietan ere hanka bat euskararen gainean edukitzea bermatu behar da, eta nazio izatearen begirada kontuan hartuz.
- Euskararen desmerkantilizazioan sakondu beharra, euskalduntze prozesua ez dadin izan merkatuan erosten duzun zerbait baizik eta herri prozesu bat. Eta horrek, indarrak eta baliabideak non jartzen ari diren hausnartzera eraman behar gaitu.
- Hizkuntza auziaren irakurketa erradikala: diskurtso eta praktiken inguruko gogoeta konpartitu baten beharra. Oinarrizko kontsentsu zabaletik baina planteamendu erradikala eginez.

Rubiales, Mario Lopez, PPDA eta indarkeria matxista

Gertaerak: Rubiales, Mario Lopez eta PPDA

2023ak hiru izen ezagun izan ditu; hiru erasotzaile ezagun; nahiz eta erasotzaileak ez diren hiru bakarrik izan. Hiru gertaera hauek, ordea, aukera ematen digute gure bizitzak zeharkatzen dituen indarkeria matxistaz hitz egiteko.

Rubialesek Futboleko Munduko Kopan jokalaria bati emandako muxu behartuak ez zukeen halako harrabotsik sortuko, baldin eta atzetik indarkeria-egitura oso bat existituko ez balitz; indarkeria, botere-abusua eta mespretxua emakume jokalarien eguneroko ogia izango ez balira; emakumeon bizipenetan gutxiespena, gehiegikeriak eta indarkeria hain presente egongo ez balira. Muxuak azaleratu du hori guztia eta lehertu egin da. Gertaera honek agerian jarri ditu ondoren sakonago aztertuko ditugun hainbat gako:

1. Mugimendu Feministaren lanketa eta gogoetei esker, indarkeria matxistak ulertzeko modu sakonago eta konplexuago bat garatu eta sozializatu da.
2. Emakume kirolariek elkartasunetik eta ahizpatasunetik erantzun dute.
3. Emakumeen arteko antolakuntzaren garrantzia ukaezina da. Emakume futbolariak sindikatuta zeuden eta emakumeen baldintzak hobetzeko ibilbide bat egina zuten. Eta, antolaketa horri esker, erasoari kolektibo gisa erantzun dute.
4. Horrek guztiak, hots, emakumeen antolaketa eta kontzientzia feministak, biktimaren rola gainditu eta eraldaketarako subjektu gisa jokatzera eraman ditu. “Ez gara ikusle soilik izango; guk ere jokatu nahi dugu”; eta “denok jokatzeko dugu edo baloia zulatuko dugu”.

Era berean, horrelako erasoetan maiz ikusten ditugun jokabide batzuk errepikatu dira, hala nola eraso azalaztean eraso existitu dela ukatzea, emakumearen onarpena zuela aldarrikatzea eta, azkenik, emakumea errudun gisa aurkeztea. Gertaera bera ukaezina gertatu denean, Rubiales munstro gisa aurkeztu da, arazoa gizon partikular baten kontua balitz bezala, eta ez atzetik daukan botere-egitura guztiarena.

Kameren aurrean hau gertatu bada, plaza publikoan, futboleko munduko txapeldunekin, zer ez da gertatuko ezkutuan geratzen diren eremuetan, herritar gisa ere aitortuak ez diren emakumeekin.

Rubialesen ondoren ezagutu ditugu beste erasotzaile batzuen izen-abizenak, Mario Lopezena, esaterako. Gernikan, urte luzez saskibaloitaldeko entrenatzaile izandakoak sexu-eraso jarraitua egin zion taldeko neska adingabe bati duela 20 urte inguru. Gertaeren lehenengo zantzuak ezagutu ondoren, botere-egitura oso batek babestu du gizon hau, egoerak eztanda egin duen arte. Mugimendu feministaren eta herritarren antolakuntzak eta erantzunak neurriak hartzea bultzatu ditu saskibaloitaldeko arduradunak. “Guk sinesten dizugu” izan da aldarria, mugimendu feministarena ez ezik, herri oso batena; eta emakumeek kirolean jasandako indarkeria gehiago azaleratzea ekarri du.

Ipar Euskal Herrian, berriz, indarkeria matxistak aurpegi bat izan badu, Patrick Poivre d’Arvor, PPDA gisa ezaguna, izan da. Kazetari frantsez ezaguna da, besteak beste, TF1eko gaueko albistegia aurkezten aritu zelako 21 urtez. PPDAk hartu ditu hedabideak eta astindu ditu kontzientziak. Eta erasoak jasandako emakume kazetarien elkartasuna izan du ezaugarri. Lehen salaketa 2021ean jarri zioten, 2004tik aurrera egindako bortxaketengatik eta, ordutik, gutxienez 24 emakumek ezarri dute haren kontrako salaketa. 2022an hogeit hamar emakume kazetari agertu ziren hedabide batean PPDAren aurkako salaketen berri emateko; 1985etik 2015era bitartean gertatutako erasoak. Aurreko gertaerek bezala, nabarmentzekoa da PPDAren erasoak ahalbidetu dituen botere-egitura eta orain arte sentitu izan duen inpunitatea. Urtea bukatzean dela, PPDA akusaziopean jarri dute 2009ko bortxaketa bategatik, prokuradorearen irizpidearen kontra, halere.

2023an gertaera hauek (eta beste batzuk) hartu dituzte hedabideetako titularrak. Ez dira indarkeria matxistaren erakusgarri bakarrak izan, baina balio dute indarkeria matxistaren atzean ezkututzen diren hainbat alderdi ikusarazteko, jarraian aletuko ditugunak.

Gertaerek erakusten digutena

Bat. Indarkeria matxistaren ulerkeran eta politizazioan aurrerapausoak

Indarkeria matxistaren eta erasoen definizio eta ulerkera zoli eta zabalago baten erakusgarri dira gertaerok. Mugimendu Feministaren lanketa eta gogoetei esker, asko ikasi eta aurreratu dugu indarkeria matxistaren ulerkeran. Izendatu egin ditugu pairatzen ditugun indarkeria guztiak, seinalatu egin ditugu eta, salatu; eta honek izugarritzko garrantzia dauka. Indarkeriaren ulerkera honek politizazio bat ekarri du, marko teoriko berri bat, indarkeria matxista sistemaren muinean kokatzen duena. Jada ez da sekula izanen puntualki gertatzen den zerbait, ez da berriz izanen emakume batzuei gertatzen zaien zerbait, ez da izanen pertzepzio kontu bat.

Mugimendu Feministak egindako lanak lagundu du indarkeria matxistaren ulerkera hau jendarteratzen, zabaltzen; sentitzen dugun beldurra eta haserrea politizatzen. Gure bizipenak eta emozioak politikoak direla irakatsi digu feminismoak. Eta orube sendoak finkatzen ari gara ikasitako inpotentzia deseraikitzeke; hots, potentzia, agentzia, indarra, eragiteko ahalmena... berreskuratzeko. Era berean, beldurra sozialki eraikitzen dela ere ikasi dugu. Ikasi dugu terrore sexuala nola eraikitzen den, alarma soziala sortzen duten kontakizunen bidez (Alcasser, Iruñeko San Ferminetako talde-bortxaketa, Nagore Laffageren erailketa, jaietako ziztadak...), beldur sexuala gorputzean sartu eta emakumeon askatasuna mugatzeko.

Halere, ezin ahaztu hau guztia patriarkatuaren oldarraldi baten testuinguruan kokatzen dela eta kontzientzia-hartze horrekin batera, erantzun patriarkala gero eta oldarkorragoa dela. Gizonen arteko konplizitatea eta indarkeria matxistaren negazionismoa bizi-bizirik daude.

Bi. Munstroak eraikitzeke joera eta isiltasun konplizea

Erasotzaileak munstro bilakatzeko joera eta erasoen aurrean isilik geratzea gauzak bere horretan mantentzeko bi estrategia dira: zarata eta isiltasuna; "besteak" seinalatzea eta ezer ez esatea.

Eraso batek gizartea astintzen duenean edo sona hartzen duenean, ohikoa da erasotzailea munstro gisa aurkeztea. Aterabiderik sinpleena eta kontinuitena horixe da; erasoak gizon "gaixo" baten burutazioa balitz bezala aurkeztea; gertaera isolatu bat; gizarte patriarkalarekin lotura zuzenik ez duena; eta gutarra ez den munstro batek egina; "besteak" gisa definitua. "Besteak" seinalatzeak bertan goxo jarraitu nahi dutenak lasaitu egiten ditu. Gizonak, gizon "normalak", "jatorrak", ez dira interpelatuak; jendartea ere ez; ezta erakundeak ere. Gu eta besteak, logika bitar horrek indarkeria matxistaren egiturazko jatorria aztertzea oztopatzen digu eta indarkeria matxistarekiko dugun erantzukizunetik eta bere gainean kolektiboki eragiteko dugun gaitasunetik aldentzen gaitu. Hori dela eta, funtsezkoa da "bestetasunaren" ideia hori deuseztatzea.

Gizon askoren isiltasun konplizea ere nabarmena izan da Rubialesen auzian, esaterako. Baina isiltasun konplizea ez da Rubialesen auziaren ezaugarri bat soilik. Hainbat eta hainbat gertaeren aurrean ozenki astintzen gaitu gizon askoren isiltasunak.

Hiru. Indarkeria matxista, patriarkatuaren biziraupenerako ezinbesteko mekanismoa

Gaur egun ohikoa da indarkeria matxista izebergaren metaforarekin azaltzea. Indarkeria zuzena da ikusten duguna, nahiz eta botere-egitura oso batek eusten duen, ikusten askoz zailagoa dena. Horren haritik, indarkeria matxista emakume eta gizonen desberdinkerien adierazpiderik larriena dela esan ohi da, gertaera isolatu bat baino zerbait gehiago dela adierazteko. Hori horrela izanda, garrantzitsua da nabarmentzea indarkeria matxista ez dela soilik desberdinkerien adierazpena, desberdinkeria horiek mantentzeko eta irauteko mekanismoa ere badelako. Ez da soilik ondorio bat, desberdinkeriak mantentzeko eta kontrol sozialerako mekanismo ahaltsua ere bada. Izan ere, desberdinkeriatan oinarritutako sistema guztiek beharrezko dute indarkeria bizirauteko, ez baitago beste modurik jende multzo baten zapalkuntza edo menderakuntza mantentzeko. Indarkeria matxista kontrol mekanismo bat da, subordinazioa iraunarazteko estrategia, espazioetatik kanporatzeko tresna, diskriminazioak transmititzeko modua...

Maitena Monroyren hitzak hartuz, “Indarkeria sexistaren ezaugarrietako bat da instrumentala dela. Erasotzaileak onurak lortzen ditu indarkeria erabiltzean eta, era berean, sistemak behar duen kontrola lortzen du gizarte-ordenari eusteko. Beste ezaugarria da ez dela motibaziozkoa, hau da, ez da biktimak egiten duenaren araberakoa. Azkenik, adierazkorra da mezu argiak bidaltzen dituelako: emakumeoi zuzendutako mezua, batetik, emakumeoi gerta dakigukeenari buruz; eta, gizonen zuzendutako mezua, bestetik, emakumeen egin diezaieketenari buruz. Elementu hauetako bakoitza berrelikatzen joaten da zigorgabetasuna eta ordena soziala bermatzeko”.

Lau. Nik sinesten dizut: elkartasunaren eta ahizpatasunaren indarra

Hasieran aipatu ditugun hiru gertaeretan nabarmendu dira emakumeen arteko elkartasuna eta “nik sinesten dizut” aldarria; eta honek ikasgai hauek utzi dizkigu, besteak beste:

Indarkeria matxista patriarkatuaren biziraupenerako ezinbesteko osagaia den neurrian, emakume guztion egunerokotasuna bustitzen du; emakume guztion bizitzak zeharkatzen ditu. Denoi ez digu berdin eragiten, emakumeok, genero-ardatzaz gain, beste menderakuntza batzuek ere zeharkatzen gaituztelako; baina denoi eragiten digu. Indarkeria matxista saihestezina eta konstantea da emakumeon bizitzetan. Hainbat forma har ditzake, hala nola indarkeria instituzionala, ekonomikoa, psikologikoa, sexuala, fisikoa, sinbolikoa...

Bestetik, indarkeria matxista ez da gertatzen zaigun zerbait, egiten gaituen zerbait baizik.

Lehen aipatu dugun bezala, emakumeon artean nabarmen areagotu da indarkeria matxistaren ulerkera konplexu eta zabal bat. Kontzientzia horretatik abiatuta uler dezakegu indarkeria

matxisten adierazpide batzuen berri izan ahala, emakume asko eta askok beren haserrea agertzea eta modu bateratuan erantzutea. Emakumeon arteko elkartasuna eta, zehatzago, ahizpatasuna, indarkeria matxistari erantzuteko arma ahalsua bihurtu da. Testuinguru honetan ulertu behar dugu “nik sinesten dizut” edo “guk sinesten dizugu” leloak hartu duen indarra. Lelo bat baino gehiago, posizio politiko bat da. Ahizpatasunetik emakumeen hitza aintzat hartu eta zalantzan ez jartzea esan nahi du. Eremu judizial eta instituzionalak gainditzen ditu eta ekintza feminista solidarioaren lurraldean kokatzen da, ahizpatasun klabea.

Horrek guztiak ekarri du emakumeon arteko elkartasuna indartzea. Indarkeria kasu bat ezagutzean berehalako erreakzioa eta erantzuna emateaz gain, beste indarkeria kasuak azalartzea, indarkeria matxista emakume guztion eguneroko ogia dela salatzeke, besteak beste, #MeToo eta #SeAcabó salaketa-oldeak (azkena Rubialesen erasoaren ondoren), eta, Euskal Herrian, #EmakumeokPlanto aldarria.

Bost. 2023ak 5 izen ditu

- **Lourdes del Hoyok** 50 urte zituen eta Orion hil zuen bikotekide ohiak.
- **Maialen Mazonek** 32 urte zituen eta Gasteizen hil zuen bikotekideak.
- **Maria Begoñak** 89 urte zituen eta Bilbon hil zuen ilobak.
- **Zhen Jiangek** 47 urte zituen eta Iruñean hil zuen bikotekideak.
- **Mateok**, 7 urte zituen eta Lizarran hil zuen bere aitak.

Berriak indarkeria matxistak eraildako emakumeen datu-basea osatzen dihardu 2003tik eta, azken hogeitun urteotan, indarkeria matxistak Euskal Herrian eraildako 118 emakume eta 12 haur zenbatu ditu.

Lizarrako hauraren erailketaren harira, errealitate honen aurrean emakume eta haurren babesgabetasuna nabarmendu nahiko genuke. Errealitateak bestela erakusten badigu ere, Gurasoen Alienazio Sindromearen (GAP) mitoak eta iruditeriak indar handia du jendartearen pentsamoldean, diskurtsoetan eta epaitegietan. Gurasoen banantze-kasuetan, GAPek emakumeak gezurti eta manipulatzailerik gisa aurkezten ditu. Emakumeak edo haurrak aitarekin egoteko erresistentziaren bat erakutsiz gero, harreman horretan egon daitezkeen botere-abusuak edo indarkeria-susmoak piztu ordez, amarengan jartzen da susmoa, amak haurra aitari min emateko manipulatzeko duelakoan. Ikuspegi honek indar handia du epaitegietan ere. Horrekin lotuta, gurasoen banantze-kasuetan, custodia partekatua lehenesten da guztiaren gainetik, gaur egungo legediaren arabera; eta ez dira aintzat hartzen bikote-harremanetan existitu daitezkeen indarkeriak. Ondorioz, emakumeak kontrolatzen jarraitzeko eta seme-alaben bitartez mintzeko aukera ematen zaie hainbat gizoni.

Sei. Erakundeak indarkeria matxistaren aurrean

Politika publikoetatik honi guztiari erantzuteko neurri partzialak gailentzen dira, oro har. Ez da kontuan hartzen indarkeria matxistaren egiturazko izaera, sostengatzen duen sistema osoa. Ondorioz, neurri asistentzialistak eta banakakoak eskaintzen dituzte. Gutxiengo zerbitzu batzuk eskaintzen dituzte zeozer egiten duten itxura eginez, baina dagokien erantzukizunik hartu gabe:

- Biolentzia matxista konkretu batzuei bakarrik eskaintzen zaie arreta, ikuspegi asistentzialista batetik eta denbora oso laburrean.
- Indarkeriaren atzean, ez ditu pertsonak eta komunitateak ikusten, “kasuak” baizik; eta, ondorioz, eskaintzen dituen zerbitzu zurrun horien bidez biktimizazioa bultzatzen du. Ez du helburutzat pertsonen agentzia; ez ditu errespetatzen bakoitzaren erritmoak; eta ez ditu onartzen gustuko ez dituen erabakiak.
- Ez du indarkeriari aurre egiteko ikuspegi integralik eta, ondorioz, arreta beharrean dauden pertsonen arreta partziala eta limosnan oinarritua ematen zaie, non askotan erasotzailearekin bizitzera kondenatuak dauden; salaketa amaigabeetara behartzen ditu; ez ditu bermatzen kalitatezko arreta psikologikoa eta juridikoa.
- Azken urteotan onartzen ari diren legeak, protokoloak eta gomendioak garrantzitsuak badira ere, ez dira behar bezala garatzen eta askotan erakundeek euren ardura estaltzeko erabiltzen dituzte; baita, sarri, emakumeok kulpabilizatzeko ere (“ezin da babestu babesneurriak kontuan hartzen ez dituen”, “ez du inoiz salaketarik jarri”, “banaketa traumatikoa izan zen”...).

Halere, erakundeen erantzunari dagokionez, badaude, gaur egun, eredu bi:

- Eredu konplazientea Jaurlaritza, Nafar Gobernu eta Aldundietatik bultzatzen dena: “ahal dena egiten dugu”, “lakra bat bizi dugu”.
- Eredu eraldatzailea: erantzun komunitarioa eta neurri integralak bultzatzen dituen, pertsonengan fokua jarrita.
- Azken ereduari lotuta, ekimen hauek nabarmendu daitezke:
- Emakumeen etxeak: indarkeria matxistari aurre egiteko eskaintzen dituzten zerbitzuez gain (psikologikoa, juridikoa, terapeutikoa...) agentzia pertsonal eta kolektiborako gune seguruak dira. Ahizpatasuna, zaintza, babesa eta aktibismoa dituzte oinarri.
- Indarkeria matxistari aurre egiteko udaletako plan integralak (Arrasate eta Basauri).
- Hilketak/eraso matxisten aurrean, honek duen inpaktu komunitariora erreparatu eta laguntza terapeutiko komunitarioak ahalbidetzeko prozesuak (Orio)
- Eskoletan Pedagogia feminista.
- Neurri erreparatzaileak, aitortza komunitariorik (“nik sinisten dizut”).

Ondorioak eta aurrera begira

Ez dago askapen-prozesurik, ez trantsizio demokratikorik, ez trantsizio feministarik, indarkeria matxistari aurrez-aurre begiraten ez badiogu. Indarkeriak ur-azpiko korrante baten gisa zeharkatzen ditu jarduera-eremu guztiak. Munduari eta, noski, Euskal Herriari ematen dio forma. Ondo identifikatzen eta asmatzen jakin behar dugu gure estatu-proiektuan indarkeriak forma hartu ez dezan.

Estatu-proiektuarekin lotuta, Euskal Herria administratiboki zatituta egoteak oso zail bihurtzen du nazio-mailako azterketak egin ahal izatea (adierazleak, datuak...). Ipar Euskal Herriko egoera da deigarriena, ez baita jasotzen indarkeria matxistaren inguruko daturik. Horrez gain, ez daukagu herri gisa esku hartzeko mekanismorik, ez prebentzioan, ez arretan.

Indarkeria matxistari aurre egiteko estrategian ezinbestekoa da politika publikoak diseinatzea, ikuspegi integral batekin, bi ildo hauetan: erantzunean eta eraldaketan. Ez da nahikoa indarkeria matxistari aurre egitea; funtsezkoa da patriarkatua eraistea, bere eskutik doan kapitalismo kolonialarekin batera. Menderakuntza-egitura guztien eraldaketa izan behar dugu zeharkako helburu proposatzen ditugun lan-lerro guztietan. Izan ere, indarkeria matxista estrukturala eta sistemikoa dela esaten dugunean esaten ari gara emakume (eta gorputz disidente) guztiok biolentzen gaituela eta sistematikoki erreproduzitzen dela, alegia, sistema aldatu ezean, etengabe berrasmatu eta gorpuztuko da.

Horrekin lotuta, urgentea da eredu eraldatzaileari erantzungo dioten politika publikoak diseinatzea eta garatzea; ikuspegi integrala, komunitarioa, erantzunkidea eta koherentea izango dutenak; hau da, politika publikoek kontuan hartu behar dute indarkeria matxistaren dimentsio kolektiboa eta erantzunkidea.

Bestetik, politika publikoetatik eskaintzen den arretari dagokionez, printzipio hauetan oinarritu beharko litzateke: zerbitzu anitzak pertsonen behar anitzi erantzuteko gai direnak, pertsonen erritmoetara egokituak, emakumeon agentzia bilatzen dutenak eta sareak eskaintzen dituztenak, zerbitzu koordinatuak eta diziplinartekoak, pertsonen beharrak eta erabakiak kontuan hartuko dituztenak.

Erakunde publikoetatik egiten denaz edo egin beharko litzatekeenaz gain, ezinbesteko garrantzia izaten jarraitzen dute salaketa eta erantzun publikoak, “nik sinesten dizut” posizio politikoak, emakumeon arteko ahizpatasunak eta autodefentsa feministak. Salaketa eta erantzun publikoak ahalmena du injustizien aurrean komunitatearen ahalik eta geruza gehien inplikatzeko. Beharrezkoa da historikoki intimitatean gordetzera behartua izan den indarkeria sozializatzeko eta politizatzeko. “Nik sinesten dizut” posizio politikoaren eta emakumeon arteko ahizpatasunaren garrantzia azaldu dugu lehenago.

Autodefentsa feminista erreminta politiko indartsu bat da, feminismoz armatzera garamatzana. Autodefentsa feministak balio du lanerako (sistema patriarkal eta kapitalista batean emakume izateak zer esan nahi duen ulertzen laguntzen digu, ikasitako inpotentziaz jabetzen, antolatzen...), balio du erantzuteko, kaleak hartzeko, pedagogia egiteko eta geure bizitzak defendatzeko. Balio du antolatzeko, espazio kolektiboak sortzeko eta, jendartea eta kontzientziak astintzeko. Gertatzen zaiguna edo egiten gaituena politizatzeke balio du, azken finean.

Orain arteko bidea indartzearekin batera, gaur egungo justizia-eredua inpugnatu eta eredu berri eta justuago bat irudikatzeke zeregina daukagu. Hortik datorkigu justizia feministaren kontzeptuan sakontzen jarraitzeke beharra. 2019an Justizia Feminista Mintegia sortu eta bertan aritu ziren gaia lantzen; eta, ondoren, EHko V. Jardunaldi Feministetan aurkeztu zen ordura arteko gogoeta.

Gogoeta honek abiapuntu izan zuen emakumeon aurkako indarkeria-kasuetan eta euskal gatazka armatuaren ondorioen konponbide-prozesuan asebetetzen ez gintuen ereduari osoko zuzenketa bat aurkezteke beharra. Galdera hauekin hasi zen gogoeta: Zer da justizia guretzat? Zein da eta nolakoa izan beharko lukete justiziaren kontzeptuak eta ereduak? Nondik has gaitzke horiek eraikitzen?

Proposatutako ereduaren arabera, justizia feministaren helburuak izan beharko lukete egindako mina aitortzea, erreparatzea eta berriro ez gertatzeko bermea. Ildo horretatik, zigorraren logika (eta gaur egungo ereduaren gailentzen den logika punitibista), zalantzan jartzen duen eztabaidari ekiteke beharra nabarmentzen du.

Gaur egungo justizia-sistema kritikatzeko dugu norbanakoa gizartetik bereizten duelako, botere-egiturak eta baldintzak kontuan hartu gabe, eta arazoak indibidualizatuz. Hain zuzen, “errudunaren” zigorra kokatzen du erdigunean eta ez ditu lehentasunezko hartzen erantzukizun kolektiboa, biktima babestea eta berarekiko elkartasuna. Justizia feministaren proposamenak nabarmentzen du edozein justiziaren oinarria gatazkak (pluralean) daudela aitortzea beharko lukeela izan; eta, justizia feministak, zapalkuntza-sistemez kontziente izan eta menderakuntza-egitura guztien eraldaketa beharko lukeela helburutzat. Horrek esan nahi du, besteak beste, arretea gehiena indarkeriaren erroetan eta ez errepikatzeke bermeetan jartzea, prebentziorako orientazio nabarmenarekin.

Gaur egungo justizia-ereduak, ordea, “errudunaren” zigorra kokatzen du erdigunean eta zigortu beharrekoak “besteak” gisa, “munstro” gisa izendatzen ditu, zapalkuntza-sistemen oinarriko logika binarioak mantenduz. Helburu nagusia sistemaren oinarri eta balioak iraunaraztea du, hortik aldentzen dena “erruduntzat” hartuz eta gainontzekeoengan araututako eta baimendutako jokabideak zeintzuk diren adieraziz. Ezin aipatu gabe utzi, bestetik, gaur egungo justizia-sistemak emakumeen arrisku- eta zaurgarritasun-egoerak areagotzen dituela eta, askotan, bigarrenez biktimizatzen dituela.

Loturak

<https://justiziafeministacom.files.wordpress.com/2020/03/justizia-feminista-ponentzia-v-jardunaldi-feministak-durango-2019-11-02.pdf>

<https://www.argia.eus/argia-astekaria/2667/indarkeria-matxista>

https://www.berria.eus/euskal-herria/hedabideak-aurak-indarkeria-sexuala-dira_1218593_102.html

<https://www.berria.eus/bereziak/indarkeria-matxista/>

<https://www.emakumeenmundumartxa.eus/>

<https://www.bilgunefeminista.eus/eu/nazkatuta-gaude-autodefentsa-feminista>

<https://www.pikaramagazine.com/2020/12/autodefentsa-feminista-ahalduntze-feministarako-proposamen-bat-da-oraindik-ere/>

<https://www.noticiasdenavarra.com/opinion/2023/09/01/mundu-ikuskeria-7207633.html>

<https://www.naiz.eus/es/iritzia/articulos/entre-rubiales-coronados-y-gabinetes-de-crisis>

https://www.berria.eus/euskal-herria/ppdak-egiten-duena-ez-da-ligatzea-ez-dago-sedukzio-izpirik_1313764_102.html

https://www.berria.eus/mundua/patrick-poivre-arvor-akusaziopean-azarri-dute-bortxaketagatik_2118193_102.html

https://www.berria.eus/euskal-herria/erasoaren-xehetasunik-ez-dugu-behar-biktima-sinesteko_2118605_102.html

Talaia uneak eman zuena

- Gogoetarekin bat egiten da.
- Indarkeria mota eta modu berriak. Patriarkatua berrasmatzen eta egokitzen da. Ahalduntze feminista bat eman da, erreakzioa sortu da. Ikuspegi honetatik momentu konplexua bizi dugu.
- Isiltasun konplizean sakondu behar da. Baita, indarkeria izendatzeko dugun joeran ere: zein egoerei kasu eta zeintzuei ez.
- Justizia feministaren kontzeptuan eta aldarrikapenean sakondu behar da. Ibilbide judizialaren ondorio negatiboak, akonpainamendu prozesuak, emakume emigranteen berezko arazoak. Hau da, ikuspegi punitibista zalantzan ezartzeaz gainera, prozedura judizialak dituzten hutsuneak eta esparru horretan dagoen formazio, sentsibiltate, gaitasun feminista ere falta salatu behar da.
- Pedagogia feministan eta lan ideologikoan jarraitu behar da.

Abaya (soineko arabiarra) debekatzearen ezkutuko arrazoiak eta emakumeengan duen eragina

Gertaera

Ipar Euskal Herrian zein Frantziar estatuan, Frantses gobernuak abaya (soinekoa arabieraz) erabiltzearen debekua finkatu eta orokortu zuen 2023 ikasturtean hezkuntza sistema publikoan. Erabaki honek 2004an eskola publikoetan erlijio sinboloei betoa jarri zion legearen hedapen bati erantzuten dio. Frantzia estatu laikoa da, eta eskoletan zein gobernu eraikinetan sinbolo erlijiosoen erabilera esplizitua debekatzeko dugu.

Abaya ez da adierazpen erlijiosoa duen jantzia, baizik eta beduinoen jantzi tradizionala da, esanahi kulturala duena beraz. Abaya debekatzeak musulmanen eta arabiarren estigmatizazioa sortzen duen erabakia da.

Frantses estatuko gatazka hau gurera ere irisi da nahiz eta maila apal batean izan. Izan ere, egun -nahiz eta Ipar Euskal Herrian emazte zapidun geroz eta gehiago ikusten den-, Ipar Euskal Herrian oso emazte gutxik jartzen dute zapia.

Gaian sartu aitzin, gogora ekarri nahi dugu testu honen helburua ez dela abaya jartzearen alde edo kontra garen aztertzea, baizik eta, debeku honen atzean dauden arrazoiak eta debeku honek dituen ondorioek, emakumeengan duten inpaktua detektatzen saiatzea.

Gertaerak erakusten diguna

Frantses gobernuak 1989tik hurrenez hurren ezarritako debekuak gogoratuko ditugu. Lehenik, zapia (*hiyab*) jartzea debekatu zuen (1989an), ondotik *burkinia* (2016an), segidan jantzi laburrak (2021) eta bukatzeko abaya (2023). Azpimarratzekoa da, debeku horiek jendarteko sektore batean dutela zuzeneko eragina, batez ere: emaztearengan hain zuzen. Gainera, neurri hauek guztiek emakumea infantilizatu eta moralizatzeko joera indartzen dute eta emakumeei libreki autodeterminatzeko eskubidea kentzen die.

Abayari dagokionez, afera hainbat heldulekutatik azter daiteke:

- Abaya erabiltzeak edo debekatzeak dituen benetako motibazioen ikuspegitik.
- Neskengan, emakumeengan eta beraien jatorrizko komunitateengan dituen ondorioen ikuspegitik. Horrelako neurrien ondorioz, emakume musulmanak, auzo popularretakoak zein dagoeneko prekaritate egoera batean daudenak baztertzen baitira.
- Feminismoaren aitzakia erabiltzeak eta Feminismo batzuen jarrerak sortzen dituen ondorioetatik.

Neurri honen atzean, argiki ikusten da bestelako interesak daudela eta beren helburuetara iristeko sarbidea eskola eta neska gazteak direla. Izan ere, Frantziar Estatuan eta ondorioz, baita Ipar Euskal Herrian ere, hezkuntza publikoa, bere izaera laikoarekin, errepublikarra eta zentralizatuarekin, nazioaren zutabetzat jotzen da. Desberdintasun eta diskriminazioa sozialak gairitu beharko lituzkeen instituziotzat definitu da eta helburu horri begira ulertu behar da edozein erlijioarekin lotuko den ezer agertzeko debekua. Aitzitik, eskolak zeregin honetan porrot egin duela esan dezakegu. Hezkuntzak egun segregazioa betikotzen du hein handi batean, eta abayaren debekuaren moduko erabakien bidez joera honetan sakondu besterik ez da egiten.

Abayaren debekuak arrazakeria eta bazterketa indartzen du

Frantses estatuak dio, neurri horiek eta konkretuki azkena (abaya), islamismo erradikalaren kontra borrokatzeko neurriak direla eta horretarako, nesken gorputza aitzakia gisa hartzen dute. Gertakari horien aitzinean egondako erreakzioek, mugimendu feministak zepo horretan sartu direla erratera eramaten gaituzte.

Emakume gazteen gorputza eta emakume gazteen identitatea eta erabaki gaitasuna kriminalizatzen ari dira. Ez da lan ideologiko bat erlijioek eta zeinu horiek dituzten esanahien inguruan. Alderantziz, neska gazteak nahi bezala jantzeko duten eskubidea urratzen ari dira. Zapia (hiyab) eta abaya dominazio jantziak izan daitezkeen arren, tentuz aritu behar da halako polemika eta erabakiekin zapiaren esanahia eta zapia daraman emaztea nahasten baitira. Oroitu nahi dugu, kultura guztiek dituztela haien dominazio sistemak emakumeon gorputzen gain eta estetikak izugarriko garrantzia duela dominazio prozesu hauetan.

Are salagarriago da, Frantses estatuak erabiltzen duen argumentua neurri horiek indarrean jartzeko. Jendartearen “islamizazioa” borroka “feministatik” garaituko dela dio estatu Frantsesak, neskak, beren erlijioaren menpe egon ez daitezen. Emazteek beren gorputzaren jabe izatearen argumentua lehen lerroan jarriz, jendarte arrazistago bati ematen diote bide. Baina, Frantses

gobernuak indarrean duen politika islamofoboak, bortitzagoa eta sexistagoa den jendarte eredu bati egiten dio harrera. Frantses estatuak bere burua neutraltzat jotzen du, guk arrazista eta islamofoboa dela erraten dugu.

Jar ditzagun zapia zein abayaren inguruko polemika eta islamofobiaren gorakada perspektiban. Migratzaile arabiarrek eta musulmanek Frantziako gizartearen egunerokoan zeregin aktiboa duten bitartean, politika publikoetan ahaztuak izan dira, hiri kulturari ikusezin bihurtu dira, oro har eskala sozialaren behealdean dira, eta langabezia eta prekaritatea pilatzen diren auzo periferikoetan kokatu dituzte. Komunitate hauek beren nortasuna eta identitatea espazio pribatuan ez ezik publikoan adierazteko erabakia hartu duten momentuan sortu da polemika. Balio errepublikanoak arriskuan jartzen direnaren aitzakian arreta zein kontrol beharra duen komunitatea bihurtu dira, islamak mendebaldeko gizartearen balioak mehatxatzen omen dituelakoan.

2001eko ekintzen ondoren abiatutako "Terrorismoaren aurkako gerra", diskurtso islamofobo horren katalizatzaile bihurtu da. Testuinguru globalak islama, islamismoa eta terrorismoa uztartuko ditu. Diskurtso diskriminatzaileak politika diskriminatzailea ekarri du eta alderantziz; gainera, zapia polemika politiko honen erdigunean jarri da. Harrezkero, hamaika lege eta arau ezarri dira espazio publikoetan musulmanen ikusgarritasuna mugatzeko. Zapia edo abayaren aurkako ofentsiba arabiarrekiko eta musulmanekiko salbuespenezko tratua adierazpen ikusgarriena baino ez da, laikotasunaren izenean musulmanak legetik kanpo bultzatzen dituen eta gizartetik baztertzen dituen.

Laikotasunaren izenean arrazakeria eta islamofobia errespetagarri bihurtzeko arriskua dago. Zentzu honetan, zapia erabiltzen duten emakumeak, islamaren ikusgarritasunaren eragile nagusiak izan direnak askotan, estatuko esku-hartze horren lehen biktimak bihurtu dira eta, besteak beste, ondorioz eraso islamofoben biktimen artean gehienak emakumeak dira. Horrez gain, neurri horien bidez, emakume musulmanak bizitza sozialetik eta esparru publikotik kanporatzeko arriskua indartu da.

Frantziako feminismoa uniformizatzailea izateko arriskua.

Feminismoa mugimendu eta ideologia plural eta heterogeneoa da, garai eta leku bakoitzera eta emakumeen bizipen anitzetara egokitzen dena eta egokitze gaitasun etengabea adierazi behar duena, gure ustez. Frantziako zenbait feminismo laizismoaren bandera bere egin eta zapia zapalkuntzaren zein feminismoaren balioen kontrako sinbolotzat hartu dute. Feminismo honek ez du dituen pribilegioak aintzat hartzen eta beste emakume batzuen menderakuntzan lagundu dezake jarrera hauen bidez.

Feminismoak borroka inklusibo bat izan behar du, errespetuzko espazioak eraikitzea bultzatu eta eraldaketarako askotariko estrategiak proposatu behar dituena. Horretarako, zurtasun burgesaren ereduaren sartzen ez den guztia zapaltzen duen sistemaren sustraiei aurre egin behar die eta honek, besteak beste, emakume afroamerikar, transexual edota arabiarren egunerokoa ulertzea eskatzen du. Ikuspegi interseksionala erabili behar da emakume musulmanen bizitzak ezagutzeko eta borroka feminista egiteko dituzten moduak aintzat hartzeko. Alta, elkartasun feministaren printzipioa bermatu behar da, erlatibismo kulturean eta emakumezko agentzia kentzen dien jarrera paternalistetan erori gabe.

Narratiba ofizialaren arabera emakumeek zapia janzten dute beren gizonen zein kulturak behartzen dituztelako, horren aurrean irtenbidea emakume hauek ikastetxeetatik kanporatzea eta familien espazio pribatura itzultzea omen da. Jarrera honek ez du zentzurik, ez da eraginkorra, ez du emakumea indartzen, eta are, gehiago baztertu dezake.

Kontuan izan behar dugu gainera zapia moduko erlijio-seinaleak eramateak hainbat esanahi izan ditzakeela. Hala nola zure etniarekiko elkartasuna agertzeko modua izan daiteke, zure komunitatearen zapalkuntza-egoera saihesteko erlijioaren espiritualtasunean babestu izanaren erabakia adierazi dezake, edota establishmentari aurre egiteko jarrera adierazi dezake.

Zapia edo abaya daramaten emakumeek gehienetan zapalkuntza patriarkala eta arraza diskriminazioa pairatzen dituzte era berean. Emakume hauetariko askok, feministak izan edo ez, beren askotariko eskubideak aldarrikatzearekin batera, euren erlijioa eta kulturaren aurkako gorroto diskurtsoa salatzen dute.

Horrenbestez, Feminismoak errespetatu egin behar du emakumeek beren gorputzari buruz hartzen dituzten erabakiak eta horrek janzteko modua barne hartzen du. Galde diezaiozun geure buruari ea takoi altuak, makillajea edota emakumetasun kapitalistaren adierazpen ezberdinak ez ote diren zapalkuntzaren seinale.

Emakume arabiar eta musulmanen diskriminazio errealitateak borrokatu behar dira eta beren borrokak aurreiritzirik gabe ulertzen saiatu behar dugu, mendebaldekoak ez diren kulturak berez sexistagoak eta homofoboagoak direnaren ustea alboratuz.

Emakumeon gorputza, gatazka eta askapen esparrua

Aurreko ataletan aipatu dugun bezala neska hauetariko batzuentzat, abaya edo zapia janztea identitate kulturala baieztatze modua izan daiteke edo sinpleki, beste neska edo jendarteaz ezberdintze modua, edota pairatzen duten diskriminazioak salatze modu bat. Are, abayaren erabilera bera zapiaren debekuaren aurrean sortutako erreakzioa izan daiteke. Nerabeek

araua urratzeko eta identitatea adierazteko moduak bilatzen dituzte eta abayaren debekuaren aurrean bide berriak asmatuko dira. Denak du bere beste aldea eta zapia moduko sinboloak balio patriarkalaren sinbolotzat hartu daitezkeela ezin ahantzi daiteke, eta hauek emakumeon gorputza mugatzen dutela, emakumeon gorputza markatzen dutela.

Bukatzeko, beste bi gogoeta nabarmendu nahi ditugu guzti honen harira:

- Abayaren debekuaren moduko neurriek, emakumeon gorputza eta autodeterminazioa mugatzen dutenak, kontrol sozialerako eta uniformizaziorako tresna dira eta nerabezaroan identitatea sortzeko eman behar den prozesua oztopatzen dute.
- Era berean, indartzen den polemikak gazteen artean jarrera arrazistak indartzen eta normalizatzen laguntzen du. Gatazka sozial hau guztia emakumeon gorputzean ematen da, eta emazteen erabakietara eramaten da.

Ondorioak eta aurrera begira

Polemika interesatu baten aurrean topatzen gara, milioika ikasle zeuden aurtengo kurtso irekieran ehunaka batzuk soilik agertu dira abaya jantzita lehen eskola egunetan eta, hauen artean, gutxi ukatu dute kentzea. Polemika mediatizatu da, Frantzia geroz eta indar gehiago duen eskuinarentzat eta eskuin-muturrarentzat interesekoa delako islama erdigunean kokatzen duen polarizazio politikoa.

Aipagarria da sektore progresistetan sortu den eztabaida. Euskaldunok ongi dakigun bezala, Frantziako balore errepublikarrek, uniformizatzaileek eta jakobinoek prediku handia dute oraindik ere ezker frantsesean, nahiz eta geroz eta ahots gehiagok salatzen duten islamofobia eta kultur gutxituen zapalkuntza.

Gai konplexua da, zalantzarik gabe, baina abayaren debekua arrazakeria, diskriminazioa eta estigmatizazioa sortzen duen politikaren adibidea izaki, emakumeongan inpaktu kaltegarri zuzena duela uste dugu.

Alta, bizi dugun mundu globalizatu honetan geroz eta ugariagoak dira Euskal Herrian ere beren kultura eta identitate erlijiosoak modu publikoan bizi nahiko duten komunitateak. Honek gogoeta eskatzen digu, jendartean, instituzioetan eta feminismoan bertan.

Talaia uneak eman zuena

- Oro har, adostasuna dago egindako irakurketarekin.
- Zalantzak sortzen dizkigun gaia da: janzkerak diskriminazioa sortzen du, baina, aldi berean, identitatea sortzeko eta erresistentziarako tresna da. Dimentsio politikoa eta dimentsio kultural/erlijiosoak nahasten dira.
- Erlatibismo kulturala dago gaiaren inguruan, norberaren kultura errespetatu beharra hobesten da. Horrek zalantzak sortzen ditu.
- Gure burua deseraikitze ariketa da hausnarketa hau. Feminismoa deseraikitze beharra dugu: kristautasuna edo islamismoa, biak dira barneratuta ditugun ideia kultural eta erlijiosoak; horietatik haratago joan behar dugu.
- Islamofobiari buruzko eztabaida behar dugu Euskal Herrian. Egun, polemika interesatua dago, ez benetakoa.
- Hausnarketa horretatik abiatuta, elkarlanerako bideak ireki behar ditugu. Zaila bada ere, gaiari buruzko eta, oro har, kultura-aniztasunari buruzko eztabaida emakume musulmanekin batera egin behar dugu.
- Erantzukizun politikoa dugu gaiarekiko. Herri mailan, feminismitik eta ezkerretik eman behar ditugu erantzun bateratuak.

2023ko balorazioa

Atariko

Patriarkatua prozesu zehatzen bidez berreraikitzen den sistema bat da. Ikuspegi orokor eta sistemikoa. Aztertu ditugun gertaeren arteko lotura.

Berreraikitze hori lehia bat da. Sakoneko joerak ezin ditugu modu linealean edo deterministan aztertu... Nahiz eta, sinplifikatzeko, aurrera edo atzera goazen aztertzen saiatuko garen...

Emakumeen errealitate zehatzetik begiratu nahi dugu; hor bistaratzen da sistema, hortxe gauzatzen da, eta hortik ebaluatu ahal ditugu haren bilakaera eta aldaketa-proposamenen arrakasta.

Sakoneko joerak

Negatiboak

- Ongizatea pribatizatzea. Horrek prekarietatea eta pobretzea eragiten ditu eta inpaktu berezia du emakumeengan (zaintza lan handiagoa, presioa...).
- Indarkeria (eta beldurra) erabiltzea, bere dimentsio guztietan, logika eta bizimodu horiek inposatzeko.
- Sistema horrek ustiatu beharreko baliabide gisa erabiltzen du lurra, eta krisi ekologiko geldiezina eta kontrolarik kanpoko eragin du.

Positiboak

- Feminismoaren hegemonia soziala eta horrek dakarzkigun erronka berriak:
 - Indarkeriari dagokionez ahots propioa edukitzea.
 - Eragiten jarraitzea, zaintza eta beste gai batzuk hegemoniko bihurtzeko.
 - Begirada feminista bat ezartzea halakorik ez duten gai hegemonikoetan (adibidez, krisi ekologikoan).
- Emakumeen konfluentziak eta autoantolaketa.
 - Hainbat arlotan.
 - Zaintza, indarkeria edo euskararen aurkako oldarraldia herri gisa aurre egin beharreko gai bihurtzea.
 - Askotariko artikulazioak eta konfluentziak...

- Lurraldeetan errotuta dauden eta honakoa sustatzen duten alternatibak: eredu publiko-komunitarioa, energia burujabetza, elikadura burujabetza, burujabetza estrategikoa...
- Ekonomia, gobernantza, politika eta beste hainbat arlo feminismitik inpugnatzen eta eraldatzen dituzten alternatibak.

2023. urteak prozesu horretan izandako eragina

Atzerapausoak

- Bizi baldintzen gogortze prozesua:
 - Krisi ekologikoa eta klima aldaketa.
 - Bizitza garestitzea eta prekarietatea nahiz pobretzea areagotzea.
 - Desberdintasunak areagotzea, baita emakumeen artean ere.
- Eliteen eta inpugnatutako sektoreen erreakzioa:
 - Euskararen normalizazio prozesuaren aurkako oldarraldia.
 - Eskuin muturraren eta patriarkatuaren agenda normalizatzea: abaya, indarkeriak...

Aurrerapausoak

- Konfluentziak: herri eztabaidak eta sektoreen arteko artikulazioa (zaintza, indarkeriak).
- Euskal feminismoak erantzuteko eta eragiteko gaitasuna erakutsi du (GFO, mobilizazioak).

2023. urtea aztertzekeo begirada subiranista (burujabetza norberaren bizitzaz, bizitza kolektiboaz eta lurraldeaz erabakitzekeo gaitasun gisa ulertuta):

- Aztertutako gertaera guztiak emakumeen eta gure komunitatearen gaitasun indibidual nahiz kolektiboan eragiten dute.
- Greba feminista orokorra: Euskal Herrian errotuta eta bertako jendartea eta eragileak interpelatuz. Kontuan izan ditzagun gure indarrak, egin dezagun gure bidea. Talaiak bere ekarpena egin nahi du instituzionalizazio prozesu horretan.
- Euskararen aurkako oldarraldia.

Geure begirada eraikitzen

- Hausnartzeko, geure buruari galderak egiteko eta kontzeptuak nahiz estrategiak izendatzen ikasteko prozesua.
- Euskal lurralde guztiak eta haietan dagoen aniztasuna barnebiduko dituen begirada bat sortzeko prozesu konplexua.
- Hurrengo dosierrak hobetzea ahalbidetuko diguten ondorioak ateratzeko prozesua.

Gomendioak

Gomendioak gizarteari

Balioets dezagun

- Antolaketa eta erantzun feministarako gaitasuna erakutsi dugu:
 - Zaintzen krisia: zaintza sistema publiko-komunitario baten aldeko greba feminista orokorra.
 - Bizitza garestitzea: sindikalismo feminista.
 - Euskararen aurkako oldarraldia: erantzun antolatua.
 - Indarkeria matxista: ahizpatasuna eta sareak.

Kontzientzia har dezagun

- EH ez dago arazo globaletatik kanpo:
 - Eskuin muturra, krisi ekologikoa.
- Eskubideen urraketa kolektiboa pairatzen dugu (zaintza, euskara, bizitza duina...).
 - Gertatzen zaigun zerbait da? Egiten diguten zerbait da!
 - Prekarietatea eta pobrezia ez dira norbanakoen porrotak. Erantzuleak dituzte
- Lorpen handiak, baina asko falta:
 - Lanaren eta aberastasunaren banaketa desorekatua; indarkeria; homogeneizazio kulturala.

Arduraz jokatzera eta exijitzea: guztiontzat bizigarria izango den Euskal Herri bat elkarrekin eraikitzea

- Instituzio publikoen ardurak:
 - Eskubideak bermatzea, lurraldeetan errotutako zerbitzu publiko unibertsal eta euskaldunen bidez.
 - Politikak artikulatzean feminismoari entzutea.
- Pribatizazioak geldiaraztea:
 - Gure bizitzak ez dira negozioa.

- Euskal lurralde bakoitzeko eta haien arteko aniztasuna defendatzea, begirada erantzunkide batetik:
 - Aniztasuna aberastasuna da; desberdintasuna eraikitako arazoa da.
- Gure eguneroko bizitzan mundua erreproduzitzeko edo aldatzeko aukera daukagu:
 - Kontsumo ereduak aldatu.
 - Emakumeen* arteko ahizpatasuna eraiki.
- Gizonak patriarkatuaren onuradunak dira:
 - Ez zaintzea pribilegioa da.
 - Konplizitatea eta isiltasuna indarkeriaren aurrean (ez dira munstroak!)
- Kolektiboki antolatu behar gara larrialdian...eta normaltasunean!

Gomendioak instituzioei

Salatzen dugu

- Egoera larria, eskubide kolektiboen urraketa:
 - Euskararen aurkako oldarraldia, indarkeria matxisten berrantolaketa, prekaritatea eta pobrezia, krisi ekologikoa.
- Egoera horrek kausak eta erantzuleak ditu:
 - Aberastasun kolektiboa pribatizatzen duen, kulturak homogeneousatzen dituen eta indarkeria erabiltzen duen sistema sostengaezina.
- Zergatik ez da lehertzen? Emakumeek bizitzari eusteko betetzen duten zeregina.
 - Ezkutatzen den ardura. Bake soziala hausten ari gara.

Txalotzen dugu

- Feminismoa indartsu dago:
 - Ekimena: greba feminista orokorra, indarkeria matxisten kontrako erantzun antolatua
 - Hainbat gai agendan sartzeko gaitasuna: zaintza sistema publiko-komunitarioa, onespenik eza indarkeriatzat hartzea.
- Erne gaude “zuriketa morea” ekiditeko. Gaiak lerroburu hutsa izan ez daitezen.

- Ez dugu erreakzio ultrakontserbadorerik onartuko

Eskatzen dugu

- Eskubideen bermatze kolektiboa, eragile sozialei entzunez. Berehalako ekintzak:
 - Erosahalmena berreskuratzeko eta soldata arrakalak desagerrarazteko.
 - Funtsezko beharrak (zaintza, elikadura, energia, etxebizitza...) merkatu espekulatiboetatik ateratzeko eta zerbitzu publikoen pribatizazioa galarazteko.
 - Erantzukizun publiko sendoa eraikitzeke: zerbitzu unibertsalak eta euskaldunak. Zaintza sistema publiko-komunitarioa.
- Indarkeria matxisten aurrean:
 - Protokolo eta politika integralak.
 - Justizia feministaren ikuspegitik.
 - Hezkuntzari garrantzi handia eman.
- Euskararako eskubidea bermatzeko erantzukizuna:
 - Desmerkantilizazioa.
 - Herrigintza prozesua.
- Lurraldearen eta euskal lurraldeen arteko ikuspegi erantzunkidea eraikitzea.

Gomendioak eragile sozialei

Begirada berriak eskatzen dituen egoera larri eta konplexu baten aurrean gaude

- Egungo egoera zein den argi adieraztea: larrialdia eta eskubide kolektiboen urraketa.
- Kontuan hartzen ez diren dimentsioei garrantzia ematea:
 - Bizirik iraungo badu, sistemak premiazkoa du dimentsio horiek "ahaztea" (landa eremuaren eta hirien arteko desberdintasuna, biziraupen estrategia feminizatuak...)
- Sistemaren dimentsio heteropatriarkalak ulertzea:
 - Zaintzak eta indarkeria matxistek sistemari eusten diote.
- Krisi ekologikoa bertan dela ulertzea:
 - Jasangaitzak diren eta atzerriarekiko menpekotasun handia duten ekoizpen moduak berrikustea

- Eskuin muturra bertan da: erantzun integrala eman behar zaio, aliantzak eginez:
 - Eztabaida konplexuei ekitea (islamofobia, adibidez), eurozentrismoa alboratuz eta erasoak pairatzen dituztenekin aliantzak eginez.
 - Erasoaldi integral baten aurrean borrokak batzea: lgtbiq* pertsonen aurkako erasoak, pertsona migratuen eta arrazializatuen kontrakoak eta euskararen kontrakoak.

Antolaketarako eta aldarrikapenerako funtsezko ardatzak

Euskal Herri burujabea eraikitzeko trantsizio prozesua feminismoz betetzea:

- Askotariko desberdintasunen aurka borrokatzeko konfluentzia espazioak.
- Guztiontzako bizi-baldintza duinen defentsa, hemen eta orain, sistema finkatu gabe:
 - Lana eta aberastasuna banatu.
 - Lan baldintzak hobetzeko borroka, logika ez-merkantilista batetik (sindikalismo feminista).
 - Eskubideetarako sarbide kolektiboak lehenestea (zerbitzu gehiago, ez diru gehiago).
 - Enplegu publikoa eta ehun sozioekonomiko burujabea eta hemen errotua.
- Apustu hirukoitza: desmerkantilizazioa, desfamiliarizazioa eta eredu publiko-komunitarioa
 - Edukiz eta proposamen zehatzez betetzea.
- Bide berriak irekitzen dituzten kontzeptuak eta proposamenak hausnartzea eta garatzea:
 - Larrialdia eta aldaketa sistemikoa uztartzeko eta polarizazio interesatuak saihesteko (abayaren aurrean, adibidez)
 - Eredu publiko-komunitarioa, justizia feminista, emakumeen gorputza gatazka eta askapen esparru gisa.

Dei berezia egiten diegu gizonei

- Beren berrikuspenean erantzukizunak har ditzaten:
 - Indarkeriaren eguneroko berreraikuntzan jokatzeko duten papera.
 - Zaintzen arloan ardurarik ez hartzea.
- Orain arte prozesu feministetan jokatu duten paper ahula berrazter dezaten, Greba feminista orokorrekarekin ikusi den bezala.

DOSIER
fem
TALAIA FEMINISTA